

**BERGARAKO UDALEAN
EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLANA
2023-2027**

(BERGARAKO UDALEKO OSOKO BILKURARA ERAMATEKOA)

AURKIBIDEA

	Orrialdea
1.- Sarrera: Udalaren euskara planak: <ul style="list-style-type: none">• Herrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP)• Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.	3
2.- Planaren aurrekariak eta testuingurua: 2.1.- Orain arteko mugarri nagusiak: lege-oinarriak eta udal-egitasmoak... 2.2.- Bikain ebaluazioa.	3
3.- Plana diseinatzeko metodologia, faseak eta partaideak 3.1.- KEMEN metodologia testatzea: plan pilotua 3.2.- Partaideak eta faseak.	5
4.- 2023-2027rako Plan Estrategikoa 4.1.- Helburua 4.2.- Oinarrizko irizpideak 4.3.- Planaren egitura: Kudeaketa eta Erabilera. 4.4.-Diagnosia eta proposamenak arloz arlo. <ul style="list-style-type: none">4.4.1.- Iturriak: Bikain ebaluazioa, galdetegiak, lantaldeetako ekarpenak,4.4.2.- Adierazleen aurreikuspenak proposatzeko irizpideak4.4.3.- Plan Estrategikoaren taulen gaineko azalpenak4.4.4.- 2023-2027rako Plan Estrategikoa: taulak.	12
5.- 2023rako kudeaketa plana 5.1.- Lehentasunak finkatzeko irizpideak 5.2.- 2023ko kudeaketa planetik talde-lanketa eskatzen duten ekimenak 5.3.- 2023rako kudeaketa plana, ekintzen taulak	40
6.- Plana kudeatzeko egitura	49
7.- Eranskinak 7.1. Eusko Jaurlaritzak proposatutako adierazleen panela (KEMEN metodologia) <ul style="list-style-type: none">a) Jarraipena egiteko Aginte-paneleko adierazleak, ponderazioekin.b) Adierazle sistemako adierazle guztiak, ponderazioekin. 7.2. Diagnostikoa egiteko erabilitako galdetegiak: langileei pasatutakoa eta Euskara Zerbitzuak behaketaz eta datuak jasota betetakoa 7.3. 2023-2027 Plan Estrategikoaren laburpena (langile guztiei banatzekoa)	50

1.- SARRERA.

Udalaren euskara planak

Udalek **bi plan** onartu ohi dituzte hizkuntza normalizazioaren arloan, biak ere Eusko Jaurlaritzak finkatutako gidalerroei jarraiki, eta biak berritzen dira 4-5 urtean behin:

1. **Herrian Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).**

Udalerrira begirako plan estrategikoa. Gizarteko arlo multzo zabal batean euskara normalizatzea: familia, irakaskuntza, aisia, kirola, merkataritza, lan-mundua, teknologia berriak... Aurten landuko dugu hurrengo urteetarako plan berria.

2. **Udalan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.**

Udal administrazioan garatuko den hizkuntza-politika jasotzen da plan honetan. Bigarren plan hau da dokumentu honetan jaso duguna eta ESEP lantzean harekin uztartuko dena.

Lau-bost urteko iraupena izan ohi dute planok eta oraingoa VII. Plangintzaldiari dagokiona da, eta 2027ko abenduaren 31ra arteko iraupena izango du.

Edonola ere, plan hau oinarria da eta irauten duen 5 urte horietan jaso litezkeen ekarpenekin aberasten eta egokitzen joango da, beti ere bertan jasotako helburu eta irizpide orokorre jarraiki.

Bestalde, plan estrategikoaz gain, 2023rako kudeaketa-plana ere osatu eta jaso da bertan.

2.- PLANAREN AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

2.1. Orain arteko mugarri nagusiak: lege-oinarriak eta udal-egitasmoak...

Berrogei urte bete ziren iaz Euskararen normalizazio legea onartu zenetik. Hura izan zen administrazioa euskalduntzeko EAE mailako lehenengo lege-oinarria eta haren haritik beste hainbat lege, dekretu eta plan etorri ziren. Hemen horietako nagusiak jaso ditugu.

LEGE-OINARRIAK

1982. 10/1982 Euskararen Normalizazio-legea. Bertan arautu ziren herritarren eskubideak eta administrazioek haiekiko dituzten betebeharrak. Lege horretako 14. artikuluan bi arlo hauek finkatzen dira: alde batetik, administrazioko langileak euskalduntzeko neurriak; eta, bestetik, administrazioko lanpostuak betetzerakoan kontuan izan beharreko hizkuntza araubidea.

1989. 6/1989 Legea, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa. Horri loturiko lehen plangintzaldian (1990-1995) helburu nagusia administrazioko langileak euskaraz jarduteko gaitzea izan zen.

1997. 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. Dekretu honek euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu beharra ezarri zien EAEko herri-administrazio guztiei.

2016. 2/2016 LEGEA, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Udal lege berrian, 7. artikuluan lehenengo aldiz, "Udalei izendatzen zaie, eskumen propio gisa, izendatuta dauzkaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena."

2019. 179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa. Dekretu horrek hainbat berrikuntza dakartza eta, zerbitzu hizkuntzan ez ezik, lan hizkuntzan ere urrats kualitatiboak emateko aukerak zabaltzen ditu.

Bergarako Udalak 1986an sortu zuen Euskara Zerbitzua eta harrez geroztik herrian zein udalean euskara normalitzatzeko bide luzea egin du, goian adierazitako araubide horren babesean. Hona hemen mugarri nagusiak:

- **1990. Lanpostuen hizkuntza eskakizunak finkatu** eta langileak euskalduntzeko bidea jarri zen abian.
- **1991. Udalarekin harremanak euskaraz ekimena.** Errolda-berritzea aprobetxatuaz bideratu zen kanpaina. 3.400 herritarrek eman zuten izena. Urte berean hainbat arlotako 50 entitatek eta Udalak **Euskararen Hitzarmena** sinatu zuten eta, besteren artean, elkarrekiko harremanak euskaraz izateko konpromisoa hartu zuten.
- **1995. Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plan pilotua (AEBE plana izeneko)** bideratu zuen Antzuolako Udalarekin lankidetzan eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzaren gidaritzaz. Egitasmo hartan, udal prozedura gehientsuenak urratsez urrats aztertu eta horiek euskaraz gauzatzeko plan zabala eratu zen, eta alderdi politiko nagusiek konpromisoa hartu zuten hauteskundeetan hautagai euskaldunak aurkezteko.
- **1997 / 2007 / 2012-2020. Udal barruan ahozko erabilera sustatzeko ekimenak.** Hainbat alditan bideratu izan dira ahozko erabilera sustatzeko egitasmoak. Gaur egun ere abian dira Obra eta Zerbitzuetako brigadan.
- **2003. EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) onartu zen.** Udalerriko esparru guztietarako plan orokorra. Harrez gero, bi plan egin izan dira 4-5 urtero: EBPN (Gaur egun ESEP deitzen dena: Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) eta Udalerako Erabilera Plana.
- **2008. Bergara UEMAn sartu zen,** udal aurreratuenekin batera euskararen arnaguneak sendotzeko lanean eraginkorrago izateko.
- **2012. Kontratazioetarako hizkuntza irizpideak landu eta onartzea.** Bergarako Udalak 1995az geroztik hartu zituen aintzat kontratazioetarako hizkuntza irizpideak baina 2012an landu eta onartu zuen Osoko Bilkuran gaiari buruzko berariazko txostena
- **2018 /2020/2022 Euskaraldia.** 2018an “udal langileok lanorduetan ahobizi” ekimena bultzatu zen. Horretarako departamentu bakoitzeko ordezkari osatutako lantalde bat eratu zen. Hurrengo urteetan ere jarraipena eman zitzaion ekimenari.
- **2020. BIKAIN ebaluazioa, beste jauzi bat egin nahian.** Urrezko Bikain ziurtagiria lortu zen.

2.2.- Bikain ebaluazioa.

Aurrez adierazi bezala, 2020an Bergarak Bikain ziurtagiriaren kanpo ebaluazioa jaso zuen, egoera ahalik eta zehatzen ezagutzeko eta jauzi bat emateko asmoz.

Hauek dira ebaluazio taldeak bere ondorioetan jaso zituen indargune eta hobetzeko nagusiak:

Indarguneak:

Laburbilduz, eta ebaluazio-prozesu osoan zehar eskuratutako informazioa oinarri hartuta, talde ebaluatzaile honen iritziz hauek dira Bergarako Udalak dituen 3 indargunerik garrantzitsuenak:

-- Udalaren hizkuntza politika adostasunean oinarritu da hasiera-hasieratik: bai udal taldeen arteko adostasunean, eta bai langileen adostasunean. Inoiz ez da izan arazo iturri edo eztabaida-gai.

Gaitasunaren aldetik eta kontzientziaren aldetik langileak izan dira planaren aktibo garrantzitsu bat, eta halaxe dira egun ere bai.

-- Udalak ibilbide luzea egin du euskararen normalizazioan. Emaitzak ez ezik, prestigioa ere lortu du. Aintzindaria da eta hori akuilua da lanean jarraitzeko. Euskara Zerbitzuak berak ere prestigioa eta autoritatea du Udalaren barruan: bere lana ondo baloratzen da; aintzatetsi eta aitortua da.

-- Udalak jarrera proaktiboa erakutsi du. Eragile da. Herriko elkarte, enpresa, komertzio eta entitateekin lan egin du herrian euskararen erabilera soziala handitze aldera. Sarritan lidergoa erakutsi du.

Hobetzekoak:

Bestetik, hauek izan daitezke erakundeari aurrera egiten gehien lagun diezaioketen palankak, erakundearen beraren lehentasunak, errendimendua (eragin biderkatzailea) eta egingarritasuna aintzat hartuta:

-- Hizkuntza politika kudeaketa orokorrean integrazteko aurrerapausoak ematen jarraitzea. Udalak irizpide argiak ditu eta bete egiten dira. Zerbitzu bakoitzak irizpide horiek bere modura egokitzen ditu. Malgutasun horretatik abiatuta, komeni da arlo eta zerbitzu bakoitzaren hutsuneak, lehentasunak eta helburuak zein diren zehaztea. Funtzionamendu berria abian jarri behar denez, hori aukera bat da hasiera-hasieratik hizkuntzaren gaia txertatzeko.

-- Kulturari, aisialdian, kirolean ahalegin handia egin ondoren, agian komeni da datozen urteetan jomuga arlo sozioekonomikoan jartzea: batetik, udalak enpresekin dituen harremanetan euskararen erabilera indartzen, eta bestetik, enpresei normalizaziorako pausoak emateko animatzen eta laguntzen. Horrek, gainera, barruko plana eta kanpoko planak lotzeko aukera ematen du.

-- Erabat euskaraz lan egitera igarotzea da erronka, eta horretarako hutsuneak betetzen joatea. Langileen arteko ahozko harremanetan arreta jartzea komeni da, euskara langileen arteko ohiko hizkuntza izateko. Erabileran aurreratuak, Kudeaketan beste urrats bat...

Nagusiki, helburu horiei erantzun nahirik dator plan hau.

3.- PLANA DISEINATZEKO METODOLOGIA, FASEAK ETA PARTAIDEAK

3.1.- KEMEN metodologia testatzea: plan pilotua.

Sarreran adierazi bezala, Eusko Jaurlaritzak finkatu ohi ditu udalek eta gainontzeko administrazioek 4-5 urtean behin onartu beharreko euskara-planen oinarriak, eta planok diseinatu eta kudeatzeko metodologia ere proposatu ohi du.

2022an amaitu zen indarrean zegoen plangintzaldia eta plangintza berria egiteko metodologia berria diseinatu du Jaurlaritzak, KEMEN izenekoa.

Metodologia hori administrazio guztiei eskaini aurretik, ezaugarri desberdineko 5 entitatetan testatu nahi izan du eta aukeratutako erakundeetako bat Bergarako Udala izan da. Besteak, berriz, hauek: Erandio, Sopela eta Idiazabalgo udalak eta OSATEK sozietate publikoa.

Ondorioz, plan hau Eusko Jaurlaritzaren KEMEN metodologia testatzeko prozesuaren baitan garatu da eta metodologia horren egituraren arabera antolatu da.

3.2.- Partaideak eta faseak.

Esan bezala, plana Jaurlaritzaren KEMEN metodologia testatzeko prozesuaren baitan garatu da eta hori dela eta, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikarien gidaritzapean gauzatu da. Zehazki honakoak izan dira lantze-prozesuan parte hartu duten taldeak eta partaideak:

- a. **Lantalde teknikoa:** HPSko, Udaleko eta UEMAko Euskara teknikariak eta Euskara batzordeburua.
- b. **Batzorde eragilea:** Udaleko Koordinazio-batzordeko kideak + Komiteko kidea + Oposizioko ordezkari politikoak + talde teknikoa.
- c. **Arloetako bilerak.** Udaleko arloetako bilerak: Herritarrak, Lurraldea eta Antolaketa.
- d. **Oro har, langile guztiak.**

Prozesuan zehar, berriz, honako urratsak eman dira:

- a. **Komunikazioa:**
 - **Eusko Jaurlaritzako eta udaleko ordezkari politikoen bilera,** urtarrilaren 18an.
 - **Arloetako teknikarientzako** aurkezpena otsailaren 2an.
 - **Langile guztientzako** aurkezpena otsailaren 9an.
- b. **Diagnosia**
 - **Galdetegiak:** langileentzakoak/erakundeak. Hortik lortu dira hasierako egoeraren adierazleak. Otsailaren 10ean.
 - **Alderdi kualitatiboak lantzea:** egoera, egindakoak, indarguneak, zer hobetuak... Hemen txertatu dira, bereziki, 2020ko Bikain ebaluazioan jasotakoak.
- c. **Plan Estrategikoa lantzea:** helburuak, lehentasunak...
 - **Langileen ekarpenak:** langileei pasatutako galdetegian ekarpenak egiteko atal bat zabaldu zen eta zenbait ekarpen jaso ziren.
 - **Arloko bileretan,** otsail amaieran.
 - **Batzorde Eragilean,** martxoaren 10ean.
- d. **Kudeaketa plana lantzea: ekintzak, arduradunak, epeak...**
 - **Batzorde Eragilean,** martxoaren 23an.
- e. **Plana osorik aurkeztea:**
 - **Arloko bileretan:** apiril amaierako bileretan.
 - **Batzorde Eragilean:** apirilaren 27an.
 - **Langile guztiei, laburpena, maiatz hasieran.**
- f. **Plana onartzea:**
 - **Herritarren batzordean aurkeztea:** maiatzaren 15ean.
 - **Osoko bilkuran:** maiatzaren 22an.

4.- 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA

4.1.- Helburua:

Eusko Jaurlaritzaren Euskara 21 txostenean jasoa dator:

*Hizkuntza batek, biziko bada, bera nagusi den lur eremuak behar ditu, **arnasguneak** behar ditu. «Arnasgune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan».*

Hori kontuan izanik, honakoa da plan honen **amaierako helburutzat finkatzen den egoera**:

Bergarako Udala euskararen arnasgunea izango da: euskara izango da bertako ohiko lan-hizkuntza, bai ahoz eta bai idatziz, eta kanpokoekin ere, ahal den guztietan, euskarazko funtzionamendua bultzatuko du.

Era berean, euskararen erabilera indartzeko helburu hori lortzeko bidean, planak badu beste helburu bat ere: kudeaketan jauzi kualitatibo bat ematea, kudeaketa eraginkorrago bat lortzea.

4.2.- Oinarrizko irizpideak.

2023an landuko da hizkuntza irizpideen dokumentu berria. Bitartean planaren oinarri izango diren 10 irizpide nagusiok finkatu dira:

1. KUDEAKETA

- 1. Kudeaketa sistema.** Euskararen erabileraren normalizazioa udalaren kudeaketa orokorrean txertatuko da, eta udal organo eta departamentu bakoitzak bere arloko ardurak hartuko ditu.
- 2. Jarraipena.** Planaren jarraipen sistematikoa egingo da, horretarako adierazle-panelean zehaztutako informazioa jasota.
- 3. Lidergoa, eredugarritasuna.** Udaleko kideak, bereziki ardura postuak dituzten politiko zein langileak, eredu izango dira euskarari dagokionez eta jarrera proaktiboa izango dute: eurek euskaraz egingo dute eta euskaraz egitea bultzatuko dute euren jardunean.
- 4. Hizkuntza klausulak.** Hizkuntza irizpideak txertatuko dira enpresak kontratatzerakoan zein dirulaguntzak ematerakoan eta horien betetzearen jarraipena egingo da.

2. ERABILERA

- 5. Udaleko ohiko hizkuntza.** Udal jarduneko ohiko hizkuntza euskara izango da, bai ahoz eta bai idatziz.
- 6. Irudia.** Udalaren irudia osatzen duten elementuak (errotulazioak, inprimakiak, webguneak, sare sozialak...) euskaraz edo euskarari lehentasuna emanez gauzatuko dira.
- 7. Euskarazko harreman sarea.** Kanpo harremanetan ere euskara hutsezko harreman sarea zabaltzea bultzatuko da: herritarrekin, enpresekin, erakundeekin, elkarteekin...
- 8. Sortze-hizkuntza.** Testuen sortze-hizkuntza euskara izango da. Bereziki, euren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz lan egingo dute eta, arrazoiren bategatik testua ele bietan bideratzekoa bada, itzulpena Euskara Zerbitzuan egingo da, itzulpenetarako irizpideei jarraiki.

9. Ele bietakoetan euskarari lehentasuna. Ele bietan egin behar denean, euskarari lehentasuna emango zaio, bai ahozkoetan eta bai idatzizkoetan. Eta ahal den guztietan euskarazko eta elebitako idatziak bereiziko dira.

10. Hizkera argia. Euskarazko testuetan kalitatea (ulergarritasuna eta zuzentasuna) ziurtatuko da, bereziki herritarrei bideratutakoetan.

Hemen jaso gabekoetarako aurreko planean jasotako irizpideak izango dira indarrean.

4.3.- Planaren egitura: kudeaketa eta erabilera.

KEMEN metodologiak proposatutako egiturari jarraiki antolatu da plana, honako bi ardatzetan:

- **KUDEAKETA.** Euskara plana nola **gestionatzen** den jasotzen da hemen: plana bultzatzeko zein egitura duen, departamentu bakoitzak plana asumitu eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartzen duten, enpresak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.

Honako arloak hartzen ditu: Euskararen kudeaketa orokorra, Lidergoa, Langileak, Gaitasuna, Euskararen erabilera sustatzeko strategiaren komunikazioa eta Hizkuntza klausulak.

- **ERABILERA.** Udalak zein hizkuntzatan funtzionatzen duen jasotzen da hemen. Bai ahoz eta bai idatziz, udal barruan zein kanpokoekin duen harremanetan. Eta baita, idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren.

Honako arloak hartzen ditu:

- **Zerbitzu Hizkuntzaren** barruan: Irudia eta Herritarrekiko harremanak.
- **Lan Hizkuntzaren** barruan: Barne harremanak, Kanpo harremanak, Prestakuntza, Baliabide Informatikoak eta Sortze-hizkuntza.



4.4.- Diagnostika eta proposamenak, arloz arlo.

4.4.1.- Iturriak: Bikain ebaluazioa, galdetegiak, lantaldeetako ekarpenak.

Diagnostika egiteko 47 adierazle erabili dira 4.3. puntuak adierazitako bi ardatzetan banatuta: Kudeaketan, 19 adierazle eta Erabilera 28 adierazle.

47 adierazleen gaineko informazioa jasotzeko bi galdetegi erabili dira: *Langileentzako galdetegia* eta *Erakundearen galdetegia*. Langileentzako galderak pertzepzioz betetzekoak ziren eta Erakundearen galdetegiak batzuk pertzepzioz eta beste batzuk behaketaz, datuak jasota. Tauletan adierazi dugu adierazle bakoitzaren iturria.

Adierazle horietako bakoitzaren definizioa 7.2. eranskinean dator. Bertan batuta datoz *Langileentzako galdetegia* eta *Erakundearentzako galdetegia*:

Langileentzako galdetegia 102 langilek bete dute eta Erakundearen galdetegiak galderak nagusiki Euskara Zerbitzuak erantzun ditu, batzuetan arloetako teknikariek kontratatuta.

Tauletan jasotako kopuruak bi galdetegi horien bidez jasotakoak dira. Edonola ere, horretaz gain, osagarri gisa, txertatu dugu 2020an Bikain ebaluazioan jasotako informazioa ere, orduan orain baino bilketa zehatzagoa egin baitzen.

Plan Estrategikorako proposamenak ere hainbat bidetatik jasoak dira: lehenengo eta behin aintzat hartu dira 2020ko Bikain ebaluazioko ebaluatzaileek beren txostenean proposatutako hobekuntza aukerak eta, bigarrenik, langileei aukera eman zaie eurentzako galdetegian proposamenak egiteko. Baita Arloko bileretan ere. Proposamen horiek eta Euskara Zerbitzuak berak egindakoak baturik, azken proposamena Batzorde Eragilearen bileretan landu da.

4.4.2.- Adierazleen aurreikuspenak proposatzeko irizpideak.

Tauletan adierazle bakoitzaren oraingo egoeraren balorazio kuantitatiboa eta 2027rako helburutzat jartzen duguna jaso dugu. Aurreikuspen horiek egiteko, ezinbestekoa da adierazle bakoitzaren definizioak eta bakoitzak dituen aukerez ondo jabetzea. Adibidez, 1.0.2.5. adierazlean (**izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan**) 2027an 100eko puntuazioa lortzea aurreikusi dugu honako erantzun aukerak dituelako:

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	
E5	Dagozkien arduradunek biltzen dituzte erabilera planean zehaztutako adierazleei buruzko datuak?	1	Batere ez edo oso gutxitan	Jaso beharreko informazioaren % 20 baino gutxiago jasotzen dute.	0
		2	Gutxitan	Jaso beharreko informazioaren % 20-39 artean.	25
		3	Erdizka	Jaso beharreko informazioaren % 40-59 artean.	50
		4	Gehienetan	Jaso beharreko informazioaren % 60-80 artean.	75
		5	Beti edo ia beti	Jaso beharreko informazioaren % 80 baino gehiago.	100

Adierazle bakoitzaren azalpen zehatza 2. eranskinean dator: diagnostikoa egiteko erabilitako galdetegian.

Hala, beraz, adierazle bakoitzean orain dugun egoera eta adierazle bakoitzaren azalpenak kontuan harturik honako irizpideak finkatu ditugu aurreikuspenak egiteko:

1.- KUDEAKETA.

- a) Balorazio baxua edo ertaina duten adierazleak (%60 baino baxuagoa), gutxienez, %75era iristea planteatzen da.
- b) Erakundearen galdetegian gure pertzepzioaren arabera, %75eko balorazioa jaso dutenak kasu bakoitza bereiz baloratu da eta batzuk bere horretan utzi dira eta beste batzuk %100era pasatu dira. %100era pasatzearen arrazoia honakoa da: hainbat adierazletan %75eko balorazioak adierazi nahi du irizpidea gehienetan (%60-%80an) betetzen dela eta %100eko balorazioak beti edo ia beti (%80an edo gehiagotan) betetzen dela.
- c) Langileen galdetegiko erantzunetan balorazio guztiak dira altuak. Balio baxuena idatzizko gaitasunean dago baina igoera izateko zailtasunik handiena ere horretan izango da. Orokorrean puntu pare bateko igoera txikia aurreikusi dugu.

2.- ERABILERA:

2.1.- ZERBITZU-HIZKUNTZA. Berez, legez, %100ean bete behar da euskarazkoa eta elebietetakoa kontuan hartuta.

2.1.1. IRUDIAN kasik denean betetzen da. Beraz, aurreikuspena %100 jarri dugu eta hasiera batean ele bitakoen eta euskarazkoen proportzioetan eragiterik ere ez da planteatzen.

2.1.2. HERRITARREKIKO HARREMANAK. Udalaren eskaintza legez %100 izan behar da euskarazkoa eta ele bitakoa batuta. Horrek kasu batzuetan zalantza sortu digu: langileek eskaintza aktiboa egitea, ikastaroen eskaintza, ekitaldiak... %100 jarri behar dira derrigorrez? Horietan gehienak euskaraz dira baina badira erdarazkoak ere. %100eko aurreikuspena jarri dugu baina zalantza horrekin. Herritarrak udalera zuzentzeko erabiltzen duten hizkuntzari dagokionez, dagoenetan utzi dugu, berez, hasierako datua nahiko altua delako.

Edonola ere, herritarrekiko harremanetan, gure kasuan helburua herritarrei ele bietan bideratzen zaizkien ahalik eta idatzi gehien euskaraz bideratzea da. Oraingo egoera zehatz aztertu eta horren arabera aurreikuspena egin beharko dugu.

2.2.- LAN-HIZKUNTZA.

2.2.1. BARNE HARREMANAK. Oro har, oso balorazio altua jaso da. Ahozko erabileran dago %90eko betetze-maila baino baxuagoa. Bakoitzean 3 puntuko igoera aurreikuspena jarri dugu? Xedapen orokorrak abiatzeko hizkuntzan ere 3 puntu eta besteak berdin.

2.2.2. KANPO HARREMANAK. Kanpo harremanetan, balorazio baxuena kanpoko entitateekiko ahozko harremanetan dago. Zerbait eragin ahalko da baina interlokutorearen baitan egongo da asko. Bakoitzean puntu pare bat igotzea planteatu da eta besteetan oraingo egoerari eustea.

Gure kasuan helburua erakunde publikoekin eta enpresekin elebietetan bideratzen diren ahalik eta idatzi gehien euskaraz bideratzea da.

Kasu horretan biekin, erakundeekin zein enpresekin euskarazko komunikazioetan 10 puntuko igoera lortzea aurreikusi da.

2.2.3. PRESTAKUNTZA. Balorazio baxua edo ertaina duten adierazle guztiak (%65 baino baxuagoa), prestakuntzakoak dira. Planteatzen da gutxienez, %75eko betetze-mailara iristea.

2.2.4. BALIABIDE INFORMATIKOAK. Baliabide informatikoen kasuan, alde batetik dago, aplikazioak euskaraz jartzea. Hori dezente baldintza dezake merkatuko eskaintzak. 5 puntuko igotzea aurreikusi dugu.

Bestetik, euskaraz daudenak euskaraz erabiltzea langile guztiok bete beharreko irizpidea izan beharko litzateke. Beraz, horretan 7 puntu igotzea (%90eko betetzea) proposatzen da.

2.2.5. SORTZE HIZKUNTZA. Langileen pertzepzioz jasotako datua %84koa da. Itzulpenaren noranzkoan, azken urteetan %85-90 inguruan gailtza. Hori dela eta, %90eko aurreikuspena proposatu da.

4.4.3.- Plan Estrategikoaren taulen gaineko azalpenak

Adierazleen inguruan.

- **Datuen iturriak.** Taulatan adierazle bakoitzaren datuen iturria jarri dugu. Aurrez esan bezala, bi izan dira nagusiak: langileei pasatutako galdetegia eta Udalak berak betetako galdetegia. Lehenengoa pertzepzioz betetzekoa izan da, inolako datu-bilketarik egitea eskatu gabe. Bigarrean, berriz, galdera batzuei pertzepzioz erantzun zaie eta beste batzuetan lagin bat aukeratu eta behaketa egin da. Adierazle batzuetan bi iturriak ere erabili dira.
- **Adierazlearen garrantzia edo erabilera.** Taulatan jasotako adierazleak Eusko Jaurlaritzak KEMEN metodologiaren barruan finkatutakoak dira. KEMEN metodologiaren barruan 47 adierazle proposatzen dira baina horietako 14 adierazle jotzen ditu Jaurlaritzak garrantzitsuentzat eta derrigorrez jaso eta Jaurlaritzari bidali beharrekotzat. "Jaurlaritzaren aginte panelekoa" azalpena dutenak dira. Horretaz aparte, badira beste adierazle batzuk UEMAK aukeratu dituenak. Horiek ere adierazi ditugu.
- **Adierazle bakoitzari emandako 2027rako puntuazioen gaineko azalpenak** txosten honen 4.4.2. atalean eman ditugu.
- **Adierazleen panel osoa txostenaren 7.1. eranskinean dago.**

4.4.4. 2023-2027RAKO PLAN ESTRATEGIKOA (TAULAK)

1. ardatza: KUDEAKETA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
69	206	86	259	300

ARDATZAREN GAINEKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

2020ko BIKAIN ebaluazioaren txostenean ebaluatzaileek honako hobekuntza-proposamena egin zuten kudeaketari dagokionez:

- *“Hizkuntza politika kudeaketa orokorrean integratzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea. Udalak irizpide argiak ditu eta bete egiten dira. Zerbitzu bakoitzak irizpide horiek bere modura egokitzen ditu. Malgutasun horretatik abiatuta, komeni da arlo eta zerbitzu bakoitzaren hutsuneak, lehenetsunak eta helburuak zein diren zehaztea. Funtzionamendu berria abian jarri behar denez, hori aukera bat da hasiera-hasieratik hizkuntzaren gaia txertatzeko.”*

Udal mailan egindako balorazioan ere kudeaketan urratsak emateko aukera eta beharra ikusi da.

Alde batetik, ikusten da oso oinarri dagoela: oso gaitasun altua, langile zein politikoen aldetik euskara bultzatzeko eta ekimenetan parte hartzeko prestutasun zabala, euskararen normalkuntzan esperientzia luzea eta arrakastatsua... Izan ere, orain arteko ibilbideak Bergarako Udala eraman du bere ohiko lan-hizkuntza %90 inguruan euskara izatera.

Baina, aldi berean, ikusten da erabileran dugun egoera hori hobetzeko, kudeaketako arlo gehien-gehienetan hobetu beharra dagoela, bereziki, sistematizazioaren aldetik. Ildo horretatik, honako helburu nagusiak planteatzen dira:

- Egitura egokia antolatzea: udalaren kudeaketa orokorrean txertatua eta erabakitzeko ahalmena duena, zeharkakoa, arlo desberdinetako politikoz eta teknizariz osatua, jasangarria eta operatiboa izango dena.
- Jarraipen sistematikoa egitea. Urteko kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunarekin.

- Erabilera planaren gaineko komunikazioa hobetzea, bai herrira begirakoa eta baita udal barrura begirakoa.
- Politiko zein langileen parte hartzea sustatzea eta udal organo zein departamentu bakoitzak planarekiko ardurak hartzea.
- Udalerriaz gaindiko elkarlana indartzea, bakarka zailak diren hainbat ekimen elkarrekin bideratzeko: UEMA, UDALEKIN... Adierazleen aginte-panel komuna izateak horretarako ere balio behar digu.

1.0.1. arloa. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA.

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
60	36	75	45	60

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.1.1: Udalak plan estrategiko eta kudeaketa-plan kudeatzeko sistema egituratua osatu du.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E1 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p>	<p>Egoera: Oraingo kudeaketa sistemako osagai nagusiak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Euskara Zerbitzua da plana exekutatzearen eta jarraipena egitearen arduradun nagusia. Bere urteko planean aurreikusten dira urterako eginkizunak eta berak gidatzen eta bideratzen ditu. Euskara Zerbitzuaren koordinazio-bileretan aztertzen dira eginkizunok, batzordeburua ere bertan izanik. • Gaikako lantaldeak sortu izan dira: ahozkoa, kontratazioa... • Kudeaketa plan transbertsalik ez. Teknikari eta politikoez, oro har, oso ondo erantzun izan dute parte hartzea eskatu izan zaienean baina ez dago kudeaketa-plan transbertsal bat departamentu bakoitzaren ardurak eta egitekoak zehaztu eta esleitzen direna... • Udalez gaindiko koordinazioa eta gai batzuen lanketa ere egiten da: batez ere, UEMA mailan eta Gipuzkoako lurralde mailan. Gai batzuetarako oso kontuan hartzekoa da. <p>Indarguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lanerako oinarri ona dago. Langile eta politikoen aldetik badago hizkuntza gaiez jarduteko eta arduratzeko ohitura. <p>Planerako neurriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • 1.0.1.1.a Egitura egokia antolatzea: udalaren kudeaketa orokorrean txertatua eta erabakitzeko ahalmena duena, zeharkakoa, arlo desberdinetako politikoz eta teknikariz osatua eta operatiboa izango dena. Planean jaso da proposamena: Batzorde Eragilea, arloetako lantaldeak, gaikako lantaldeak, lantalde teknikoak.... 	75	75

<p>1.0.1.2. Udalak plan estrategiko eta kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da (<i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i>)</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E2 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Jarraipen batzorde bat dago departamentu guztietako kidez osatua baina urtean behin elkartu izan da eta, ondorioz, ez dio planari jarraipen estu eta etengaberik egin izan. Bestalde, udalak bere jardun ohikorako antolatutako egituraz apartekoa da. <p>Indargunea:</p> <ul style="list-style-type: none"> Egoeraren diagnosi zehetua egina dugu (Bikainerako eta planetarako) eta arlo askotan jasotzen dira adierazleak eta informazioa, plana egoki diseinatzeke eta aginte-panel egoki bat sortzeko balio dezakeena... <p>Planerako neurriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> 1.0.1.2.a Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua landu eta onartzea. 1.0.1.2.b Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea, hizkuntza inpaktu berezia izan dezaketen Udalerriko plan eta proiektuen kasuetan. 1.0.1.2.c Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea: ditugun helburuekin eta lehentasunekin uztartua, egoki definitutakoa, datuak biltzeko modua, arduradunak, maiztasuna, epeak... zehaztuta izango dituen eta modu jasangarrian jasotzeko modukoa izango dena. 1.0.1.2.d Urteko kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea, horretarako finkatutako prozedura eta maiztasunarekin. 1.0.1.2.e. 2024ko kudeaketa plana diseinatzea, Plan Estrategikoan eta 2023ko kudeaketa planean oinarrituta. Zeharkako gaien (Berdintasuna, Prebentzioa, Ingurumena, Euskara...) kudeaketa bateratua bideratzeko antolaketa-modua aztertzea, efikaziaren mesedetan, eta jasangarria izango den antolaketa lortzeko. 	<p>50</p>	<p>75</p>
--	---	------------------	------------------

1.0.2. Arloa. LIDERGOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
70	53	84	63	75

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.2.3. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia E3.1, E3.2, E3.3. galderak. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Indargunea Oro har, bai politikoen eta bai langileen aldetik erantzun ona jasotzen da erabilera-planarekin lotutako edozein ekimenetan.</p> <p>Planerako neurriak: 1.0.2.3.a Liderrek normalizazio planean dituzten funtzio eta egitekoak zehaztu eta komunikatzea, arduradun politikoengandik hasi eta atalkako arduradunengana, argi izan dezaten zer egin behar duten beren egunerokoan euskararen erabilerari dagokionez, zerbitzu guztiak kontuan harturik. 1.0.2.3.b. Udalbatza berriari Erabilera plana aurkeztea.</p>	83	100
<p>1.0.2.4 Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E4 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Indargunea Bai politiko eta bai langileetan asko dira euskararekiko konprometituak eta hizkuntza jokabide eredugarria dutenak.</p>	75	75
<p>1.0.2.5 Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E5 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p>	<p>Egoera Gaur egun jasotzen dira hainbat datu. Horiek sistematizatzea eta biltzeko metodologia egoki bat finkatzea falta da.</p>	50	75

1.0.3. arloa. LANGILEAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	60
81	49	88	53	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.3.6 Langileei ematen zaie informazioa plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.</p> <p>Datuen iturriak (bi hauen batez bestekoak):</p> <ul style="list-style-type: none"> Erakundearen galdetegia E6 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin. Langileen galdetegia, L1 galdera. <p>UEMAk aukeratutako adierazlea</p>	<p>Egoera Komunikazioari dagokionez, hainbat bide erabili ohi dira: planen lanketako parte-hartze prozesuak plan berrien aurkezpenak, langileen harrera-protokoloa... Eta, horretaz aparte, komunikazio-une garrantzitsuenak eguneroko jardunean sortzen diren momentuak dira: gairen bati buruzko irizpidea zehaztea, testua gainbegiratzea eta abar eskatuaz langileak Euskara Zerbitzura datozenekoak. Edonola ere, ez dago horretarako estrategia landurik.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.3.6.a Langileei erabilera plana eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea, bakoitzaren egitekoak azalduaz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea...</p> <ul style="list-style-type: none"> Balizko ekintzak: <ul style="list-style-type: none"> Departamentu bilerak, helburuak jasotzen dituzten posterrak, pilulak, berripapera, talde giroa sortzeko ekintza ludikoak, jokoak ... Politiko zein langile berriei harrera egitea. 	81	85
<p>1.0.3.7 Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L2 galdera. Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>		90	92
<p>1.0.3.8 Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L3 galdera.</p>		73	89
<p>1.0.3.9 Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L4 galdera.</p>		59	75
<p>1.0.3.10 Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L5.1, L5.2 galderak</p>		88	90

1.0.4. arloa. GAITASUNA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	-
91	-	92	-	-

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.4.11 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E6 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin. UEMA adierazlea</p>	<p>Oro har gaitasun ona. Langileek, oro har, badute maila on samarrean euskaraz jarduteko adinako gaitasuna. Jardun idatzi dezentea duten ia guztiek dute 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Ia teknikari guztiek 4.a eta administrari, administrari laguntzaile eta brigadako taldeburuek 3.a. Langileen %8 inguru da euskaraz ez dakiena, guztiak brigadakoak: eraikin garbitzaileak, kale-garbitzaileak, pioiak...</p> <p>Planerako neurriak 1.0.4.11.a Langileak euskara maila hobetzera animatzea, bereziki, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna adinako euskara maila ez dutenak edo hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan arren, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak, eta horretarako baliabideak eskaini. 1.0.4.11.b Hautaketa-probetan, derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan, proba bat gutxienez euskaraz egitea. Honen gaineko adierazlea jasotzea.</p>	91	92
<p>1.0.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko.</p> <p>Datuen iturria: langileen galdetegia. L7 galdera. UEMA adierazlea</p>	<p>Oro har gaitasun ona. Jardun idatzi dezentea duten ia guztiek dute 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta. Ia teknikari guztiek 4.a eta administrari, administrari laguntzaile eta brigadako taldeburuek 3.a.</p> <p>Ahulguneak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Edonola ere, kontuan hartu beharra dago horietako askok gai teknikoetarako gaitasun erlatibo hobeak dutela gaztelaniaz. Kanpotik gaztelaniaz edo elebrietan datorrenak gaztelaniaren gaitasun hori handitzen du. • Zenbait zailtasun izaten dira lanpostu batzuk euskaldunekin betetzeko. <p>Planerako neurriak 1.0.4.11 adierazleko neurri berak.</p>	83	85
<p>1.0.4.13 Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E7 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin. UEMA adierazlea</p>	<p>Indargunea: 1995ean alderdi nagusiek aurrerantzean hautagai euskaldunak jartzeko konpromisoa hartu zuten eta orduz geroztik agintaldi guztietan bete izan dute. Horretaz gain, hauteskunde aldietan egin izan dira kanpainak bailara mailan hautagai euskaldunak jartzearen eta hautatzearen garrantziaz sentiberatzeko eta azken urteetan ordezkari politiko guztiak euskaldunak izan dira.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.4.13.a Ordezkari politikoak euskaldunak izatea bultzatzen jarraitzea, udalaren euskarazko funtzionamendua bermatzeko. 1.0.4.13.b Udalkide berrien hizkuntza ezaugarrien eta beharren informazioa jaso eta euskaraz funtzionatzeko laguntza-bideak eskaini.</p>	100	100

1.0.5. arloa. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
72	33	96	43	45

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.5.14. Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei.</p> <p>Datuen iturria: Erakundearen galdetegia. E8 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p>	<p>Egindakoak: Bereziki plan estrategikoak onartzean-eta antolatu izan dira komunikazio-kanpainak. Horretaz aparte, zeharka, euskara sustatzeko antolatzen dituen ekintzen bidez, udalak transmititzen du euskara sustatzeko asmoa. Hala ere, akaso falta da kasu bakoitzean zehatzago eta zuzenago komunikatzea. Adibidez, harremana dugun enpresei zuzenean adieraztea, eurekiko harremana euskaraz izatea nahi dugula eta eurak ere guregana euskaraz zuzen daitezela. Baita euskaraz egiten dutenean zorientzea eta hala jarraitzea animatzea ere.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>1.0.5.14.a Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia aktiboki komunikatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei. • Zuzeneko komunikazioa, udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte eta abarrei. <p>1.0.5.14.b Udal instalazioetan Udalak euskara sustatzen duela adierazten duten elementuak jarri, lehendik ez badaude edota daudenak berritu.</p>	75	100
<p>1.0.5.15 Udalak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatzeko ekimenetan parte hartzen du.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E9.1, E9.2 galderak. Euskara Zerbitzuko teknikariok parte hartutako saioak zerrendatuta. Lagina: 2022an gauzatutako ekintzak.</p>	<p>Planerako neurriak</p> <p>1.0.5.15.a Euskararen normalizazio-prozesuaren baitan, beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta norberarenak ezagutzera emateko ekimenetan parte hartzen jarraitzea; eta ahal dela, parte hartze hori areagotzea.</p>	83	85

1.0.6. arloa. HIZKUNTZA-KLAUSULAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
60	36	93	56	60

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>1.0.6.16. Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E10 galdera, laginketaz. Erabilitako lagina: ESKUAKo 2022ko kontratu guztiak begiratu dira. Eskarrietan (900-9000 euroko aurrekontua dutenetan) ez dugu begiratu. UEMA adierazlea</p>	<p>Irizpideak ezartzearen egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kontratazio zerbitzuak kudeatzen dituenetan, ia %100ean betetzen da. Eskarrietan (900-9000 eurokoetan), herritarrei begirako jardueretan ia %100; udal barrurakoetan gutxiago: proiektuen idazketa, aholkulariak, softwarea, ... <p>Egindakoak: Kontratuatarako, irizpideen ereduaren bilduma behin behineko bat osatua dago.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.6.16.a Kontratuatarako irizpideen bilduma osatzea eta eskuragarri jartzea 1.0.6.16.b Xedean hizkuntza-erabilera duten kontratu guztietan hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatzea.</p>	75	100
<p>1.0.6.17 Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E11 galdera. Erabilitako lagina: Dirulaguntzei dagokienez, webgunean jasota dauden eta entitateentzako diren dirulaguntza-lerroak. Hitzarmenen kasuan, 2022ko hitzarmen guztiak. UEMA adierazlea</p>	<p>Egoera: Irizpideak jartzen dira kasurik gehienetan. Alde batetik, dirulaguntzen ordenantzan hizkuntza irizpideak agertzen dira eta dirulaguntzen deialdiko oinarri orokorretan ere bai. Horretaz aparte, oinarri espezifiko batzuetan (adibidez, kirolean) ere txertatzen dira.</p> <p>Aipagarria da 2022ko hitzarmen guztiak euskaraz sinatu zituela.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.6.17.a Xedean hizkuntza-erabilera duten dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatzea; lurzoru-okupazioetan ere kontuan hartuta.</p>	75	100
<p>1.0.6.18 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E12 galdera. Iritzira betea, arloko taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.</p>	<p>Egoera: berez, finkatu izan dira jarraipenerako prozedurak baina gero, lan-kargagatik, ez dira modu sistematikoan gauzatu izan. Hala ere, esan genezake irizpideak ezartzen diren kasuetan, kontratuaren xedearekin lotutako irizpideak, ia %100ean betetzen direla.</p> <p>Enpresei harrera. Enpresa batzuei harrera egiten hasi gara, irizpideak azaltzeko.</p> <p>Planerako neurriak 1.0.6.18.a Kontratueta hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea eta inplementatzea.</p>	75	100

Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa			
1.0.6.19 Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. Iturria: erakundearen galdetegia. E13 galdera. Iritzira betea, arloetako taldeetako politiko eta teknikarien ekarpenekin.	<p>Egoera. Jarraipena kasu batzuetan egiten da, adibidez, kirolean. Bestalde, prozesu bat abian dugu zeharkako beste departamentuekin (Berdintasunarekin, Prebentzioarekin eta Ingurumenarekin) batera elkarteei lau arloen gaineko galdetegi bat pasatzeko arlo bakoitzeko egoera jasotzeko. Datu-bilketa horrek lanerako oinarri egokia emango digu.</p> <p>Planerako neurria 1.0.6.19.a Dirulaguntza eta hitzarmenetako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatzea eta inplementatzea.</p>	25	75

1.07. arloa. HIZKUNTZA KALITATEA

Balorazio kuantitatiboa	2023ko egoera (%):	2027rako aurreikuspena (%):		
1.0.7.48. Udal idatzietan euskararen kalitatea zaintzen da. ¹ .	<p>Planerako neurria 1.0.7.48.a Zabalpen handiko errotulazio, ohar eta abarretan euskara-kalitatea zaintzea, bai udalaren idatzietan eta baita subkontratutako enpresek jartzen dituztenetan ere. eta baita lurzorua okupatzeko baimenen kasuan ere. Betetze mailaren berri jasotzeko jarraipen sistema adostea.</p> <p>1.0.7.48.b Testuen hizkuntza kalitatea baloratzeari eta hobetzeari buruzko txostena egitea/berritzea.</p>			

¹ KEMEN metodologian ez dago "Hizkuntza Kalitatea" arloa eta, beraz, adierazle hau ere ez. Hala ere garrantzitsua iruditzen zaigu eta txertatu egin dugu.

2- ERABILERA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	700
86	606	89	629	

ARDATZAREN GAINKO BALORAZIOA ETA HELBURU NAGUSIAK

Euskararen erabilera maila altua da oro har Bergarako Udalean. Zerbitzu-hizkuntza gisa ia %100ean bermatuta dago eta laneko hizkuntzari dagokionez ere udaleko ohiko hizkuntza euskara da.

Bikaineko ebaluazioan hobetze-aukera hauek planteatu zituzten ebaluatzaileek:

- Erabat euskaraz lan egitera igarotzea da erronka, eta horretarako hutsuneak betetzen joatea. Langileen arteko ahozko harremanetan arreta jartzea komeni da, euskara langileen arteko ohiko hizkuntza izateko. (Bikain ebaluazioa 2020ko txostena).

-- Kulturaren, aisialdian, kirolean ahalegin handia egin ondoren, agian komeni da datozen urteetan jomuga arlo sozioekonomikoan jartzea: batetik, udalak enprekin dituen harremanetan euskararen erabilera indartzen, eta bestetik, enpresei normalizaziorako pausoak emateko animatzen eta laguntzen. Horrek, gainera, barruko plana eta kanpoko planak lotzeko aukera ematen du.

Udal barruko funtzionamenduari dagokionez, hori da, beraz, erronka nagusia: bai ahoz eta bai idatziz **erabat euskaraz lan egitera igarotzeko hutsuneak betetzen joatea**: ahozko erabileran daudenak, sortze-hizkuntzan daudenak, prestakuntzari dagozkionak, baliabide informatikoekin lotuak...

Kanpo harremanei dagokienez, berriz, Udalak berak bere komunikazio ia guztiak euskaraz edo elebrietan bideratzen ditu. Bi dira, horrekin lotuta, Udalak bost urte hauetarako dituen erronka nagusiak:

- Udalak enpresei, herritarrei, erakundeei... elebrietan bideratzen dizkien komunikazioak ahal den neurrian euskaraz bideratzea.
- Udalak beste erakunde batzuetatik, enpresetatik, herritarretatik jasotzen dituen idatzietan ere euskarazko harremana bultzatzea.

2.1. eremua. ZERBITZU-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
94	197	100	210	210

2.1.1 arloa. IRUDIA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
99	42	100	42	42

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
<p>2.1.1.20 Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude.</p> <p>Iturria: erakundearen galdetegia. E14.1, E14.2. galderak. Lagina: Honako eraikinetan egin da behaketa: Udaletxea, Agorrosin, Labegaraia, Frontoia, Udal liburutegia. Kasu guztietan sarrerak.</p> <p>UEMA adierazlea</p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bergarako Udalak bere irudi korporatiboarekin zerikusia duten elementuak zaindu, eta horretarako zehaztu egin ditu horri dagozkion irizpideak: euskara ohiko hizkuntza da, eta komunikazioa ele bietan egon behar denean euskarazko bertsioa lehenesten da. Irizpide egokiak dira eta bete egiten dira. - Errotulazioa, oro har, euskaraz dago, edo euskaraz eta gaztelaniaz. Kopuruak oso esanguratsuak dira: adibidez, errotulo nagusiak euskaraz daude denak (%100), baita eraikinen aurrealdean jartzen diren euskarriak ere (gehienetan kanpainekin lotutakoak);eraikin barruan, direktorioak eta gelen izenak % 85 euskaraz; igogailuak ele bietan. - Iragarki-oholetan eta informazio-mahaietan dauden informazioak euskaraz edo ele bietan daude, proportzio ezberdinetan, eraikinaren eta edukiaren arabera. - Informazioa emateko edota gestio automatizatuak egiteko makinetan pantailak ele bietan daude kasu guztietan (B@Z, Laboratorium...) OTAren makinak ere ele bietan daude eta isunak eurak ere bai. - Udal eraikinetan ez ezik, Bergarako Udalak zaindu egiten du herriko hizkuntza-paisaia: kale izenak, norabide-seinaleak, errotuluak, aparkalekuak, 	99	48	51	0	100	49	51	0

	<p><i>informazio panelak, jolas parkeetako errotulazioa, hondakinetako ontziak eta abar. Elementu horiek guztiak euskaraz edo ele bietan daude. Lurzorua okupatzeko baimen-prozeduretan (feriak, barrakak, janari furgonetak) hizkuntza-paisaiako elementuak zaintzea eta euskaraz edo elebietan egotea eskatzen da.</i></p> <p>Planerako neurria Kalitatea zaintzea. Uneka izaten diren hutsegiteak saihestu, zabaldu aurretik Euskara Zerbitzura eramanez. Ikus 1.07.48a neurria.</p>								
<p>2.1.1.21. Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude.</p> <p>Iturria: erakundearen galdetegia. E15.1, E15.2. galderak. Komunikaziokoari galdetuta, erantzundakoa. UEMA adierazlea</p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Argitalpenetan (egitarauak, agenda, egutegia, udal gida, katalogoetan...) lehenesten da euskararen presentzia: testuak euskaraz (% 40) edo ele bietan daude (% 60).</i> - <i>Eskuorrietan ere antzeko irizpidea erabiltzen da (euskaraz % 50 eta gainerakoa ele bietan edo hizkuntza gehiagotan). Merchandansingerako elementuak (poltsak, txapela, txapak, kamisetan) euskaraz daude nagusiki (% 80).</i> - <i>Prensa-oharrak euskaraz egiten dira gehienbat (% 95), eta Udalari buruz argitaratzen diren berriak ere euskaraz dira, neurri handian. Udalak hedabideetan zabaltzen dituen iragarkiak ere euskaraz gehienak (% 85) eta gaztelaniazko medioetan ele bietan argitaratzen dira, nahiz eta soilik gaztelaniaz ematen den bat edo beste egon (Radio Euskadi).</i> 	97	70	27	0	100	72	28 0	
<p>2.1.1.22 Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan.</p> <p>Datuen iturria: erakundearen galdetegia. E16 galdera. Komunikaziokoari galdetuta, erantzundakoa. UEMA adierazlea</p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Jendaurreko ekitaldietan euskararen presentzia handia da: ekitaldien % 85 inguru euskaraz eta %15 ele bietan. Behar denean, bitartekoak jartzen dira euskara ez dakitenentzat (interpretaritzak, xuxurlariak, laburpena gaztelaniaz), batez ere, bilera irekiak direnean (Berdintasun kontseilua, osasun sarea...).</i> 	100				100			

<p>2.1.1.23 Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak. Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E17.1, E17.2., E17.3., eta E17.4. galderak. Komunikaziokoari galdetuta, erantzundakoa. UEMA adierazlea</p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Udalak hainbat webgune ditu: www.bergara.eus, www.laboratorium.eus, www.bergaraturismo.eus, www.bergarakoartxiboa.eus, www.bergarakirola.eus, http://ztbergara.eus/, eta laster www.seminarixoa.eus. Eduki finkoak ele bietan daude, nagusiki (kasu batzuetan -laboratorium, turismoa...- 4 hizkuntzatan) eta euskara lehenetsita dago. Webgune propio bat dute euskarari buruzko gaiak lantzeko: www.bergarakoeuskara.eus. Nabarmentzekoa da kasu guztietan .eus domeinua erabiltzen dela.</i> - <i>Sare sozialei dagokienez, Udalak Facebook, Twitter, Instagrama eta Youtube erabiltzen ditu bereziki. Udalaren kontu orokorrak euskaraz elikatzen dira. Laboratorium museoko Facebook eta Twitter kontuak, berriz, ele bietan. Youtuben ere bideoak euskaraz edo ele bietan daude nagusiki.</i> 	100	28	72	0	100	28	72	0
---	--	-----	----	----	---	-----	----	----	---

2.1.2 arloa. HERRITARREKIKO HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
93	156	100	168	168

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
<p>2.1.2.24 Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.</p> <p>Datu-iturria: langileen galdetegia. L8 galdera.</p> <p>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera Irizpideetan jasota dago langileek herritarrekiko harremanetan lehen hitza euskaraz egitea eta lanpostu askotan daude hori adierazten duten txartelak. Bestalde, langileek adierazten dutenez, oso maila altuan betetzen dute irizpidea.</p> <p>Planerako neurria 2.1.2.24. Herritarrekin ahoz harreman gehien duten langileen kasuan (udaltzainak, BAZ...), euskararen erabileraren inguruko azterketa egitea eta egoera hobetzeko baliabideak eskaintzea.</p>	86				100			
<p>2.1.2.25 Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.</p>	<p>Egoera</p>	96	98	0	2	100			

<p>Datu-iturria: langileen galdetegia. L9.1, L9.2 galderak. <i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Udalak udal langileen bidez herritarrei berbazko arreta ematen dien zerbitzu guztietan bermatuta dago euskarazko eskaintza, jendaurrean ari diren langile guztiak euskaldunak baitira.</p> <p>Azpiktratututako zerbitzu eta emakidetan ere herritarrei zerbitzua eskaintzen dizkieten langileak euskaldunak, dira, kasu bakanen batzuetan izan ezik: frontoiko taberna, etxe-laguntza zerbitzua... Edonola ere, etxe-laguntza zerbitzuan ere bermatzen zaie zerbitzua euskaraz izatea hala eskatu dutenei.</p>							
<p>2.1.2.26. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.</p> <p>Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E18.1 eta E18.2 galderak. Lagina: Ekitaldien barruan kontuan izan ditugu hitzaldiak, antzerkiak, pailazo emanaldiak, ipuin-kontaktak, dantza gidatu saioak, zineak, literatura solasaldiak... Eta ikastaroen kasuan batik bat kirol, kultur eta gizarte izaerakoak. Kultura departamentutik emandako informazioa. <i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Bereziki zaintzen dira kulturari, aisialdiari eta kirolari lotutako zerbitzuak. Kirol-ikastaro guztietan irakaslea euskalduna da eta euskarari bidea emateko sistema asmatu dute (semaforoarena): sinplea eta eraginkorra. Sortzen diren taldeetatik, lautik hiruk euskaraz funtzionatzen dute eta %10 besterik ez da nagusiki gaztelaniaz jarduten duena.</i> - <i>Kultura- eta gizarte-izaerako jardueretan ahalegina egiten da, eskaintzaren arabera, euskarazkoak lehenesten. Hala, euskarazkoak % 90etik gora dira genero batzuetan (antzerki, bakarrizketa, errezitaldi edo pailazo-ikuskizunetan) eta % 60-70 ingurukoa beste batzuetan (ipuin-kontaktak, hitzaldiak, ikastaro eta tailerrak).</i> <p>Planerako neurriak</p> <p>2.1.2.26. Ekitaldien hizkuntza informazioa jasotzea erraztea eta sistematizatzerik izango genukeen aztertzea.</p>	83				100		
<p>2.1.2.27 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak.</p> <p>Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E19 galdera. Lagina: Irteera erregistroko datuak, 2022ko hileko lehen 5 idatziak kontuan hartuta. Dokumentuak, berriz, denak karpeta batean bilduta daude eta han begiratu da. <i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <p><i>O Udalak herritarrei bidaltzen dizkien idatzietan erabilera nagusia elebietakoa da. Udal erabakien jakinarazpenetan %75-80 inguru dira elebitakoak, Agorrosineko bazkideentzako komunikazioak ere ele bietan dira..</i></p> <p><i>O Zenbait ahalegin egin dira euskara hutsezko jakinarazpenak gehitzeko baina orain arte ez da bide oso eraginkorrik aurkitu. Alde batetik, legezko mugak ei daude, eroldan harreman hizkuntza markatzeko; bestetik, Udal Idatziak Euskaraz zerrenda udaleko beste datu-base batzuekin lotzea falta da.</i></p> <p><i>Emaizak 2022: Irteera erregistroko idatziak: euskaraz %18, elebietan %82. Herritarren eskura jarritako dokumentuak: %100 elebietan, %97 euskaraz.</i></p>	100	18	82	0	100	30	70

	<p>Planerako neurriak</p> <p>2.1.2.27.a. Idatzien irteera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea.</p> <p>2.1.2.27.b. Udala proaktiboa izatea herritarrei bideratzen dien idatzietan. Gaur eguneko komunikazioak aztertu eta euskara hutsezkoak areagotzeko bidea landu. Lehentasunezkoak, idatzia euskaraz sartu dutenei eta idatziak euskaraz jasotzea eskatu zutenei euskaraz erantzutea.</p>								
<p>2.1.2.28 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.</p> <p>Datu-iturriak: Erakundearen galdetegia, E20 galdera. Lagina: Irteera erregistroko eta herritarren postontziko datuak hartu ditugu kontuan. ZAILTASUNAK izan ditugu erregistroan euskaraz iritsi direnak eta erantzun zaienak identifikatzeko.</p> <p><i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erregistroan euskaraz jasotako idatziei euskaraz erantzuten zaie nagusiki (%85 inguru); baina batzuetan ele bietan ere bai, zenbait arrazoigatik: prozeduran pertsona bat baino gehiago inplikaturik egotea, jabe-komunitateen idatziak... - Herritarren postontzian euskaraz jasotakoei sistematikoki euskaraz erantzuten zaie baina kasu honetan ez da aintzat hartzen horietako batzuek harremanak euskaraz izatea eskatu zutela bere garaian. <p>Planerako neurriak</p> <p>2.1.2.27.a.ko eta 2.1.2.27.b.ko berak.</p>	100	85	15		100	90	10	
<p>2.1.2.29 Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz.</p> <p>Datu-iturria: langileen galdetegia. L10 eta L11.</p> <p>Bergararren Arreta Zerbitzuan jasotzen da harremana ze hizkuntzatan izan den eta kasu horretan beste emaitza bat jasotzen da. Ikus alboan.</p> <p>UEMA adierazlea</p>	<p>Egoera</p> <ul style="list-style-type: none"> • BAZeko datuen arabera, 2021 eta 2022an izandako arreta-ekintzen %46-48 inguru izan ziren euskaraz. • Herritarrek horretara bultzatzeko txartelak badaude lanpostu batzuetan. <p>Gogoeta: GFAn egin zuten galdeketa onorioa: herritarra euskaraz zuzentzeko eragin gehien duena langileek euren artean euskaraz egitea da.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>2.1.2.29. Herritarrek udalera ahoz euskaraz zuzentzera animatzea.</p>	69				69			
<p>2.1.2.30 Herritarrek euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz.</p>	<p>Egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erregistroan: Euskaraz %48, Bietan %2, Gaztelaniaz %50 	50	48	2		50	48	2	

<p>Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E21.</p> <p>Lagina:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Sarrera erregistroko datuak. Hileko lehen 5 dokumentuak hartuta. • Herritarren postontzia. Jasotzen diren idatzi guztien hizkuntza jasotzen da. <p>UEMA adierazlea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarren postontzian: azken 6 urteetako batez bestekoa %56 euskaraz; %44 gaztelaniaz. <p>Planerako neurriak</p> <p>2.1.2.30. Herritarrak udalera idatziz euskaraz zuzentzera animatzea.</p>							
--	--	--	--	--	--	--	--	--

2.2. eremua. LAN-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
83	409	87	420	490

2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
94	137	95	139	147

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
<p>2.2.1.31 Lan-bilerak euskaraz egiten dira. Datu-iturria: Langileen galdetegiko L12 galdera. Informazio hau neurgailu automatikoarekin (E 22 galdera) ere jasotzekoa zen baina ez dugu neurgailurik eta, beraz, iturri hori ez da erabili. Ematen den datua langileen galdetegiko erantzuna da. UEMA adierazlea</p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> Plenoa euskaraz izaten da %99an. Batzorde informatiboak, bai teknikariek eta bai politikoez adierazitakoaren arabera, ia % 100 euskaraz izaten dira. Zerbitzuetako bilerak ere euskaraz izan ohi dira, kasu gehienetan. Obretako brigadan eta kale-garbiketakoan ere euskararen presentzia handia da, nahiz eta langile batzuek euskara ulertu ez edo gaitasun apala izan. Langile guztientzako batzarrak (urtean gutxi izaten dira) batzuk euskaraz izaten dira eta beste batzuk ele bietan. 	93				93			
<p>2.2.1.32 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da. Datu-iturria: langileen galdetegia. L13 galderak. Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</p>	<p>Egoera</p> <p>Ahulguneetako bat, batez ere, hizkuntza-nahasketa da, esaldi batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz egitea. Langileek betetako galdetegiaren jasotako datuen arabera, antzeko kopuruetan gertatzen da ahozko lan-harremanetan eta harreman informaletan.</p> <p>Egindakoa</p> <p>Modu jarraituan, batez ere, brigadako eta kale-garbiketako langileekin antolatuta izan dira ahozko erabilera indartzeko saioak. Horretaz aparte, Euskaraldia ere antolatuta izan da helburu berarekin eta praktikan aukera zuten langile guztiek hartu izan dute parte.</p>	89				92			

	<p>Planerako neurriak</p> <p>2.2.1.32.a. Obra eta Zerbitzuak sailean ahozko erabilera sustatzeko bideratzen diren sentiberatze-bilerekin jarraitzea.</p> <p>2.2.1.32.b. Lankideen arteko ahozko harremanetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak berriak bideratzea, "eusle" metodologiaren ildotik.</p>								
<p>2.2.1.33 Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da.</p> <p>Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L14 galdera.</p>	<p>Egindakoa</p> <p>Azken urteetan Euskaraldia antolatu izan da. Orain dela zenbait urte hizkuntza ohiturak aldatzeko bestelako ekimenak antolatu ziren.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>2.2.1.32.a-ko neurri bera.</p> <p>2.2.1.32.b-ko neurri bera.</p>	86				89			
<p>2.2.1.34 Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.</p> <p>Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L15 galdera. <i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i></p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Udal barruko harreman idatzia euskaraz da oso maila altuan. Komunikazioa, e-posta mezuak, barneko jakinarazpenak, laneko parteak... euskaraz dira nagusiki edo ele bietan euskara ulertzen ez duen langilerik dagoenean (mezuen zein laneko parteen % 96 euskaraz dira). Zinegotzien jardun idatzia ere euskarazkoa da nagusiki (% 98).</i> <i>Udal barrurako dokumentu luzeak ere euskaraz izaten dira, nagusiki: udaleko prozesu eta prozeduren definizioa, udalaren berrantolaketari buruzko txostenak, kudeaketa-planak eta aurrekontuak... Kudeaketa ekonomikoaren barruko prozesuak ere euskaraz bideratzen dira.</i> <i>Bileretako gai-zerrendak eta aktak euskaraz izaten dira erabat, baita bertan aurkezten diren txostenak ere. Horrek era guztietako bilerak barne hartzen ditu: Udalbatza, Tokiko Gobernu Batzordea, batzorde informatiboak zein zerbitzuetako bilerak. Aktak ez dira itzultzen. Batzorde informatiboetan aurkezten diren udal-langileen txostenak ere euskaraz izaten dira erabat, eta gehienak langileek eurek euskaraz sortutakoak dira.</i> 	97	82	15		98	85	13	
<p>2.2.1.35 Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian.</p>	<p>Egoera.</p> <p>Udalean euskaraz bideratzen dira, oro har, prozedura administratibo guztiak bai udalean abiatzen direnak eta baita kanpoan, herritarrek zein pertsona</p>	100	100	0		100			

<p>Datu-iturria: erakundearen galdetegia. E23 galdera. <i>UEMA adierazlea.</i></p> <p>Lagina: Eskuako espedienteetan begiratu dugu Udal teknikariak egindako prozedurako lehen idatzia zein hizkuntzatan bideratu duen, beti ere, idatzia kanporako ez denean. Departamentu desberdinetakoak izatea eta gutxienez, hilabeteko espediente bat izatea hartu dugu kontuan.</p>	<p>juridikoek hasten dituztenak ere, baita azkenekook idatziak erdaraz aurkeztu dituztenean ere.</p> <p>Planerako neurriak</p> <p>2.2.1.35.a. Elebietan bideratzekoak diren dokumentuetako gutxi batzuk (Plegu, azterketa, ordenantza, hitzarmen...) gaztelaniaz lantzen dira. Horien bilketa egin eta euskaraz sortzeko bidea jorratzea. Kanpoko enpresei gisa bereko dokumentuak eskatzen zaizkienean ere euskarazkoa (eta behar izanez gero, ele bietakoa) eskatzea.</p>							
<p>2.2.1.36 Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian.</p> <p>Datu-iturria: erakundearen galdetegia E24 galdera.</p> <p>Aliritzi egin dugu itzulpenen noranzkoa oinarri hartuta. Gainontzean, lagina bera finkatzeko eta informazioa jasotzeko modurik ez dugu oraindik finkatu.</p>	<p>Planerako neurriak</p> <p>2.2.1.36.a. Lanerako oinarritzko materiala (legeak, arautegiak...) euskaraz egoki eta ulergarri egon dadin baliabideak jarri edota langileekin lantzea; horretarako behar diren eskariak udaletik kanpo ere bideratuta (enpresei, erakundeei...).</p> <p>2.1.1.36.b. Langileei bideratzen zaizkien udalez kanpoko lanerako oinarritzko testuetan euskarazko bertsioak bidaltzea.</p>	90	90	0		92	0	
<p>2.1.2.37 Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago.</p> <p>Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L16 galdera.</p> <p>UEMA adierazlea, aukeran</p>	<p>Egoera (Bikain 2020 txostenetik)</p> <ul style="list-style-type: none"> <i>Laneko hizkuntza-paisaiari dagokionez, errotulazio txikia euskaraz dago ia erabat, baita sareko karpetak ere. Ohar-tauletan jarritako oharrak euskaraz edo elebietan (bai udaletxean bertan, baita beste eraikinetan ere). Udaletxe barruko hizkuntza-paisaia euskaraz edo ele bietan dago ia erabat.</i> <p>Hobetzekoak:</p> <p><i>Hizkuntza-paisaian zenbait hutsune txiki ikusten dira. Kopuru aldetik ez dira asko, eta identifikatuta daude: fotokopiagailuetako errotulazioa, lan-arriskuen prebentziarakoak eta kafe-makina, esate baterako.</i></p>	97	85	11		97	87	10

2.2.2 arloa. KANPO-HARREMANAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	98
89	90	90	91	

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %				2027 %			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
2.2.2.38 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L17 galdera.	Berez harremana euskaraz izatea da irizpidea	84				86			
2.2.2.39 Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. <i>Jaurlaritzaren Aginte Panelekoa</i> Datuaren iturria: E25 galdera. Lagina: Erregistroan, hileko lehen 5 dokumentuak hartuta. Ikus emaitza zehatzak alboan.	Udalaren irizpidea harremana euskaraz izatekoa da. EGOERA (Bikain 2020 txostenetik) - <i>Udalak bildu dituen datuen arabera, euskararen erabilera beste administrazioekin altua da: idatzi guztiak euskaraz ala ele bietan bidaltzen dira eta e-mail bidezko komunikazioa beste administrazioetako langileekin euskaraz da lautik hirutan.</i> <i>Udalak berariaz egin du horri buruzko apustua, batez ere EAEko erakundeekin: lehenik UEMArekin bidez, eta, berriki, HAKOBak bultzatua, erakunde publikoetako teknikarien arteko harremanak euskaraz izateko ekimenaren bidez. Jasoa dute, zerbitzu batean administrazio publiko batetik gaztelania hutsezko testua jasoz gero, zerbitzua entitate horrekin harremanetan jarriko dela harremana euskaraz izateko gonbitea luzatzeko. Bide hori eraginkorra izan da, 8 urtean 20 puntuko hazkundera antzeman baita (erregistroko datuak, sarrerak).</i> 2023ko emaitza: Irteerak (%68 E, %32 B); Sarrerak (%25 E, %65 B, % 10E). Planerako neurriak 2.2.2.39.a. Erakundeen artean euskara hutsezko harremana sustatzea.	96	58	38		96	63	33	

<p>2.2.2.40 Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L18 galdera.</p>	<p>Irizpidea ahal den guztietan harremana euskaraz izatekoa da. Betetzeari buruzko informazioa teknikariek eurek emandakoa da. Ez da bestela aparteko ekimenik bideratu izan.</p>	<p>70</p>				<p>72</p>		
<p>2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. <i>UEMA adierazlea</i> Datu-iturria: erakundearentzako galdetegia, E26 galdera.</p>	<p>Irizpidea ahal den guztietan harremana euskaraz izatekoa da.</p> <p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik)</p> <p><i>Udalak komunikazioak euskaraz edo ele bietan bidaltzen dizkie erakunde pribatu guztiei: kontratatutako enpresei, hornitzaileei eta jabekide elkarteei (2019an, % 35 euskaraz eta % 65 elebietan). Garapen teknikariak herriko arlo sozioekonomikoan (merkatariekin eta abar) egiten duen lana euskaraz egiten du, neurri handi batean. Enpresa handiekin ere nabarmena da euskararen erabilera. Kultura, aisialdi eta kirol arloko zerbitzu-enpresekin euskara hutsean funtzionatzen da kasu askotan.</i></p> <p><i>Kulturaren, aisialdian, kirolean ahalegin handia egin ondoren, agian komeni da datozen urteetan jomuga arlo sozioekonomikoan jartzea: batetik, udalak enpresekin dituen harremanetan euskararen erabilera indartzen, eta bestetik, enpresei normalizaziorako pausoak emateko animatzen eta laguntzen. Horrek, gainera, barruko plana eta kanpoko planak lotzeko aukera ematen du.</i></p> <p>2023ko emaitza: euskaraz %62; bietan %38.</p> <p>Egindakoa: 2022an lanketa sakon samarra egin da gai honen inguruan fakturretatik abiatuta. Udalarekin harreman handiena dutenekiko harreman hizkuntza (aurrekontuena, fakturena, mezuena...) atera da eta helburua da harreman horretako euskararen erabilera areagotzea.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.2.41.a. Enpresekiko harremanetan euskara hutsezko harremana sustatu. Lanketa horretan kontuan hartu azken aldi hartutako konpromisoak ere: HARIXA hitzarmena...</p>	<p>100</p>	<p>62</p>	<p>38</p>		<p>100</p>	<p>65</p>	<p>35</p>

2.2.3 arloa. PRESTAKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
54	40	66	48	73.5

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023				2027			
		Puntu	E	B	G	Puntu	E	B	G
<p>2.2.3.42 Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. Datu-iturria: Erakundearentzako galdetegia, E27 galdera. OHARRA. iruditzen zaigu ez dugula modurik beste entitate batzuen eskaintza baloratzeko. Gure kasuan geurea hartu dugu soilik kontuan eta hori ere aliritzi samar egin dugu ez dugulako informazio-iturri egokirik.. <i>UEMA adierazlea</i></p>	<p>Irizpidea honakoa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> Udalak berak antolatzen dituen prestakuntza jarduerak euskaraz izan daitezen saiatuko da. Udal langileek kanpo erakunderen batek antolatutako prestakuntza jardueretan parte hartu behar badute, Udalak jarduera hori euskaraz izan dadin eskatuko du zuzenean erakunde horrekin harremanetan jarriz. <p>Egoera: Udalak eskaintzen dituenetan gehienak euskaraz dira (Prebentzio arlotik Obra eta Zerbitzuetan ematen diren batzuk izan ezik). Besteek antolatutakoei dagokienez, berriz, IVAPi eskatu izan zaio, UEMAre bitartez, euskarazko eskaintza handitzea.</p> <p>Planerako neurria 2.2.3.42. Udalak eskaintzen duen prestakuntza orokorra/teknikoa euskaraz izatea.</p>	60	60	0	40	75	75	0	25
<p>2.2.3.43 Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L19 galdera.</p>	<p>Egoera. Langileen portzentaje handi batek (%69k) erantzun du ez duela 2022an prestakuntzarik jaso.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.3.43. Ele bietako aukera dagoenean, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna betea dutenek ikastaroa euskaraz egitea.</p>	62				65			
<p>2.2.3.44 Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.</p>	<p>Egoera.</p>	25				50			

<p>Datuaren iturria: E28 galdera. Euskara Zerbitzua. UEMA adierazlea</p>	<p>Azken bi-hiru urteetan euskara ikastarorik ez zaie eskaini udal barruan, baina langileek idatzitako testuak zuzendu ondoren saiatzen gara zuzenketak langileekin komentatzen eta hobetzeko baliabideak eskaintzen.</p> <p>Bestalde, langile berriei egiten zaien harrera-saioan trebakuntzan erabili izan ditugun testu batzuekin hizkera argia eta komunikatiboa lantzeko saiakera egiten dugu eta UEMAren trebakuntza-fitxak eskaintzen dizkiegu eta interes berezia agertzen dutenei Kultura eta Hizkuntza Politika Saitetik Jabier Osés-ek bidaltzen dituenak ere bai.</p> <p>Planerako neurriak 2.2.3.44. Administrazio hizkera argia lantzeko ikastaro praktikoak antolatzea...</p>							
--	---	--	--	--	--	--	--	--

2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
81	59	86	63	73.5

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
<p>2.2.4.45 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak. Datu-iturria: langileentzako galdetegia L20 galdera. UEMA adierazlea</p>	<p>EGOERA (Bikain 2020 txostenetik) <i>Astero erabili ohi dituzten programez galdetuta langileek emandako datuak (2020):</i></p> <ul style="list-style-type: none"> Windows office eremuko programetan: %72 E; %28 G. Irizpidea euskaraz instalatzea da baina hainbat ordenagailutan zailtasun tekniko handiak izan dira. IZFEko programak (errola, sarrera-irteeren programa, espedienteen kudeaketa, kudeaketa ekonomikoa, zerbitzuen katalogoa...). Programa berriak %100 ele bietan daude eta Udalak euskaraz lehenetsita jarri dizkie langileei. Horretaz aparte, badaude IZFEko programa zahar batzuk (Ogasunekoak, EIZ, hirilurren eta landalurren zerga..., 2-3 lagunek erabiltzen dituztenak), gaztelaniaz daudenak. Bestelako programak. Aurrekoak baino jende gutxiagok (%50 inguruk) eta maiztasun txikiagoarekin erabiltzen du bestelako programaren bat. Egoera: %36 euskaraz edo bietan; %64 gaztelaniaz. Gaztelaniaz daudenak, gehienak software espezializatuak dira, asko euskaraz ez daudenak: Autocad, Filemaker, DGTren aplikazioa (Udaltzainek eta Kontuhartzaitzetan), Artxibistikako aplikazio batzuk, OMESA 	78	82

	<p><i>kiroldegien kudeaketako programa, Nominen aplikazioa (Pertsonaleko administrariak erabiltzen du bakarrik)...</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal langileek eurek datu-baseren bat edo sortu izan dutenean, euskaraz sortu izan dute. • Langileentzako eskuko telefono berriak erostean, 2018an, irizpidetzat jarri zen euskarazko aukera izatea. • Lanpostu-zerrenda eta nominak kudeatzeko aplikazio informatikoa gaztelaniaz dago. Berez, normalean langile bakarrak erabiltzen du. <p>Planerako neurriak</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2.2.4.45.a. Lanpostu bakoitzeko baliabide informatiko nagusien eta horien hizkuntzaren inbentarioa egin eta mantentzea. • 2.2.4.45.b. Udal barruko erabilerako aplikazioak euskaraz instalatzea, aukera dagoen guztietan. • 2.2.4.45.c. Gaztelaniaz dauden ohiko aplikazioak euskaratzeko bideak jorratzea. • 2.2.4.45.d. Hizkuntza klausulak ezartzea: ordenagailuak, aplikazio informatikoak, telefonoak eta antzeko baliabideak erosterakoan edo moldatzean hizkuntza irizpideak ezartzea. <p>Beste erakunde batzuekiko elkarlana. Arlo honetan izan litezkeen zailtasunak gainditzeko, laguntza eta lankidetzat eskatuko zaie beste erakunde batzuei: GFA-IZFE, UEMA, EJ...</p>		
<p>2.2.4.46 Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L21 galdera. UEMA adierazlea</p>		83	90

2.2.5 arloa. SORTZE-HIZKUNTZA

Hasierako egoera		Aurreikusitako egoera		Lortu ahal den gehieneko puntuazioa
%	Lortutako puntuazioa	%	Lortutako puntuazioa	
85	59	90	63	98

Adierazlea	Egoerari buruzko azalpena eta planerako proposamenak	2023 %	2027 %
2.2.4.47 Euskaraz sortzen dira dokumentuak. Datu-iturria: langileentzako galdetegia, L22 galdera.. Jaurlaritzaren Aginte Panelakoa	<p>Irizpidea honakoa da funtsean: euskara izango da udal barruko jarduneko hizkuntza, bai ahoz eta bai idatziz. Euren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz lan egin behar dute eta, arrazoiren bategatik testua ele bietan bideratzekoa bada, itzulpena Euskara Zerbitzuan egingo da</p> <p>Egoera</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itzulpenetatik eskuratutako informazioa: Itzulpenaren noranzkoa: euskaratik gaztelaniara %85-90 inguru. • Langileen galdetegirako erantzundakoa. Azken 3 egunetan barrurako sortutakoaren %96a euskaraz sortu dute. Kanporako sortutakoaren %90 euskaraz sortu dute. <p>Bikain 2020 txostenetik <i>KUDEAKETA OROKORRA. Udal dinamika ohikoa honakoa da: gaiak barruan euskaraz lantzen dira eta barrurakoa bada ez da ia inoiz itzultzen. Kanporakoa bada, ahal dela, kanpora ere euskaraz bideratzen da itzuli gabe: administrazioen kasuan gehiena, herritarren eta entitate pribatuen kasuan %30-50 artean. Herritarrengandik edo entitateengandik gaztelaniaz jasotako idatzien haritik sortzen diren espedienteak ere euskaraz lantzen dira barruan. Kontuan hartzeko faktorea da, izan ere, udalean gaztelaniatik euskarara itzultzen denaren (itzulpen guztien %20-25 da orain) zati bat kanpotik datozen idatzien zatiak dira, aktetan euskaraz jasotzeko itzultzen direnak. Udalean gaztelaniaz sortu eta gero itzultzen direnen kasuan, berriz, multzo handiena (erdia edo gehiago) pleguek edo plegu-zatiek osatzen dute eta horiek gaztelaniaz sortzearen arrazoiak lana egiteko erraztasunarekin lotuak dira gehien bat: ereduak gaztelaniaz egotea edo euskarazko ereduak kalitate eskasekoa izatea, teknikariak gaitasun handiagoa izatea gaztelaniaz, presa... Kasu hauetako batzuetan gertatzen da hainbat pasarte teknikariak berak ez sortzea, baizik eta bere horretan gaztelaniaz hartzea eta hori ekartzea Euskara Zerbitzuan itzultzeko.</i></p> <p>Planerako neurriak 2.2.5.47.a. Itzulpenen noranzkoaren gaineko txostena egitea, sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko. 2.2.5.47.b. Departamentu bakoitzean udal barrurako gaztelaniaz sortzen denaren bilketa egin eta euskaratzeko bidea egitea.</p>	85	90

5.- 2023RAKO KUDEAKETA PLANA

5.1.- 2023rako lehenetsunak finkatzeko irizpideak

Atal honetan 2023an bideratzekoak diren ekintzak jaso ditugu. **Ekintzok aukeratzekoan, honako irizpideak izan ditugu kontuan:**

1.- Hizkuntza irizpide berrituak onartzea. Planarekin batera, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu beharra dago. 2023rako eginkizuna izango da, KEMEN metodologiarekin lerrokatuta, irizpide berriak landu eta onartzea.

2.- Planaren oinarri berriak jartzea:

- Euskararen erabilera udal mailako kudeaketan txertatzeko sistema berria antolatu eta martxan jartzea.
- Jarraipenerako adierazleen aginte-panela sortzea eta aplikatzea.
- Kudeaketa transbertsala bideratzea, eta arduradun politiko zein teknikoak eta, oro har, langileak inplikatzea.

3.- Abian ditugun ekimenei jarraipena ematea, bereziki, enpresen kontratazioarekin lotutakoei: hizkuntza klausulen bilduma osatzea, klausulen jarraipenerako prozedura finkatu eta bideratzea...

4.- Informatikari arreta berezia eskaintzea: lanpostu bakoitzeko aplikazioen inbentarioa egitea; lanpostuetan euskarazko aplikazioak instalatzea; aplikazioek hizkuntza kudeaketarako eskain ditzaketen aukerak baliatzea; aplikazioak erostean hizkuntza irizpideak jartzea...

5.- Erabileran oinarritzko irizpide sendoak ezartzea:

- Sortze-hizkuntza euskara izateari arreta berezia jartzea.
- Enpresa nagusiekiko harreman administratiboak euskaraz.

Ekimenok bideratzeko, hainbat talde jarriko dira abian eta horien osaerari dagokionez honako irizpide orokorra erabili dugu: gaiarekin lotura estuena duen departamentuko kide bat eta Euskara Zerbitzuko kide bat izendatzea arduradun. Taldearen osaera zehatza arduradun horiekin batera landuko da.

Bestalde, esan beharra dago ekintza bakoitzari dagokionez, jasotako bestelako xehetasunak (faseak, hartzaileak...) ere behin behinekoak direla eta horiek ere dagokion taldeak landu eta zehaztekoak direla. Era berean, ez dugu ekintzen kronogramarik ere osatu eta hori ere, arduradun horiekin batera, planaren lehen fasean landuko da.

5.2. 2023ko kudeaketa planetik talde-lanketa eskatzen duten ekimenak

Ardura partekatua: beste arlo bat eta euskara.

5.2.1.- KUDEAKETA

Helburua/ekintza	Arduradunak
<ul style="list-style-type: none">• Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea eta jarraipen sistematikoa egitea.	Euskara Gaiarekin lotutako teknikariak
<ul style="list-style-type: none">• Hizkuntza irizpideen dokumentu orokorra osatu.	Batzorde Eragileak finkatzen duen lantaldea

Komunikazioa

<ul style="list-style-type: none"> Langileei plan estrategikoa, kudeaketa planak eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea 	<p>???</p> <p>Euskara</p>
<ul style="list-style-type: none"> Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia aktiboki komunikatzea, maila desberdinetan: <ul style="list-style-type: none"> Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei. Zuzeneko komunikazioa, udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte eta abarrei. 	<p>Komunikazioa</p> <p>Euskara</p> <p>Arloetako teknikariak</p>

Hizkuntza klausulak. Kontratuak.

Helburua/ekintza	Arduradunak
Kontratueterako irizpideen eredu biltzea osatu eta eskuragarri jarri.	Euskara Kontratazioa
Kontratueterako hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatu eta inplementatu.	Euskara Kontratazioa Arloetako teknikariak

Euskararen kalitatea.

Helburua/ekintza	Arduradunak
Errotulazio eta hizkuntza paisaiako elementuetan hizkuntza kalitatea zaintzea , bai udalaren idatzietan eta baita subkontratutako enpresek jartzen dituztenetan ere. Betetze mailaren berri jasotzeko jarraipen sistema adostea.	<ul style="list-style-type: none"> Lurraldea: brigada, udaltzaingoa... Langileak oro har.

5.2.2. ERABILERA

Helburua/ekintza	Arduradunak
<ul style="list-style-type: none"> Ekitaldien hizkuntza informazioa jasotzea erraztu eta sistematizatzerik izango genukeen aztertu. 	<p>HERRITARREN ARLOA:</p> <ul style="list-style-type: none"> Kultura, kirola??? Berdintasuna Euskara
<ul style="list-style-type: none"> Idatzien irteera eta sarrera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea.. 	<ul style="list-style-type: none"> BAZ Euskara Arloetako langileak
<ul style="list-style-type: none"> Kontratatutako enpresekiko harreman "administratiboetan" euskararen erabilera sustatu. 	<p>Euskara</p> <p>Arloetako teknikariak</p>

Informatika

Helburua/ekintza	Arduradunak
<ul style="list-style-type: none"> Lanpostu bakoitzeko baliabide informatiko nagusien eta horien hizkuntzaren inbentarioa egin eta mantentzea. 	<ul style="list-style-type: none"> Informatika Euskara
<ul style="list-style-type: none"> Hizkuntza hautua eta hizkuntza adierazleak. Dauden aplikazioak (SAREKO, ESKUA, OMESA...) edo sortzen direnak, hizkuntza hautatzeko eta hizkuntza adierazleak ateratzeko moduan moldatzea. Gaur egun aukera hori eskaintzen duten aplikazioen inbentarioa egitea. 	<ul style="list-style-type: none"> Informatika Euskara

5.3. 2023RAKO KUDEAKETA PLANA, EKINTZEN TAULAK

1.- KUDEAKETA

<u>Planeko adierazlea(k)</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Faseak, azalpenak, oharra</u>	<u>Hartzaileak, beste partaideak</u>	<u>Arduradunak</u>	<u>Ekintzaren adierazleak</u>
1.0.1 arloa. Euskararen kudeaketa orokorra					
1.0.1.1. Udalak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	Erabilera plana kudeatzeko egitura egokia antolatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Egitura proposamena onartu eta kudeatu. Planean jaso da proposamena: Batzorde Eragilea, arloetako lantaldeak, gaikako lantaldeak, lantalde teknikoak... 	Udal kide guztiak	Batzorde Eragilea	Lantaldeen bilera kopurua.
1.0.1.2. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten du.	Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideen dokumentua landu eta onartzea.	<ul style="list-style-type: none"> Lantaldea osatu. Bertsio desberdinak (Udalak aurrez onartutakoa, UEMAK moldatutakoa, Jaurlaritzakoa...) oinarri hartuta proposamena landu. Udal kideen artean partekatu, ekarpenak jasotzeko. Behin betiko bertsioa egin eta Aginte Organoan onartu. 	Udal kide guztiak Herritarrak, entitateak...	Batzorde Eragileak finkatzen duen lantaldea	Hizkuntza irizpideak Osokoak onartuta
1.0.1.2. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten du.	Jarraipenerako adierazle-panel egokia sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> KEMENeko adierazle panela oinarri hartuta, Udalerako egokitutako Aginte-panela osatzea. Arloko lantaldeetan aurkeztu eta baloratzea. Batzorde Eragilean aurkeztu eta onartzea. 	Batzorde Eragilea Udal kide guztiak	Euskara Gai bakoitzarekin lotutako teknikariak	Aginte-panela onartuta.

		<ul style="list-style-type: none"> • Aginte Organoan onartu. 			
1.0.1.2. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten du.	2023ko kudeaketa-planaren gauzatzearen eta irizpideen betetzearen jarraipen sistematikoa egitea.	<ul style="list-style-type: none"> • Batzorde Eragilean kudeaketa-planaren betetzearen jarraipena egitea. • Aginte-panelaren araberako ebaluazio-txostena egin. 	Batzorde Eragilea Udal kide guztiak	Batzorde Eragilea Euskara	Aginte-panelaren araberako ebaluazio txostena eginda.
1.0.1.2. Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza irizpideen jarraipen sistematikoa egiten du.	2024ko kudeaketa plana diseinatzea, Plan Estrategikoan eta 2023ko kudeaketa planean oinarrituta.	<ul style="list-style-type: none"> • 2023-27ko Plan Estrategikoa eta 2023ko ebaluazio-txostena oinarri hartuta, 2024koa diseinatzea 	Batzorde eragilea Udal Kide guztiak	Batzorde Eragilea Euskara	Txostena osatuta eta onartuta.
1.0.2 arloa. Lidergoa					
1.0.2.3. Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	Udalbatza berriari plana aurkeztea.	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera ordezkari politiko berriekin 	Ordezkar politiko berriak	Euskara UEMA	Aurkezpena jasotako udalkide kopurua
1.0.3 arloa. Langileak					
1.0.3.6. Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	Langileei erabilera plana eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea, bakoitzaren egitekoak azalduaz. Era berean, planean aktibo izatera animatzea eta laguntzea, euren ekarpenak eskatzea, lorpenen berri ematea.	<ul style="list-style-type: none"> • Plana arloko bileretan aurkeztu • Plana departamentu bileretan aurkeztu. 	Udal langileak Ordezkar politikoak	Euskara Departamentu buruak	Bilera egindako departamentu-kopurua.
1.0.4 arloa. Gaitasuna					
1.0.4.11/1.0.4.12 Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz/idatziz betetzeko.	Langileak animatu, gutxienez, beren lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren pareko maila	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara eskoletarako izena emateko epea irekitzean, klaseetara joateko arautegi berriaren zabalkundea egin. 	Udal langileak	Euskara	Komunikazio-idatzia, bideratuta.

	lortzeko eta horretarako baliabideak jarri.				Klaseetara animatutako langile kopurua.
1.0.4.13 Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	Udalkide berrien hizkuntza ezaugarrien eta beharren informazioa jaso eta euskaraz funtzionatzeko laguntza-bideak eskaini.	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraz funtzionatzeko beharrezko laguntza-bideak eskaini. 	Ordezkaritza politikoak	Euskara Alkatea???	Informazioa jasotako udalkide kopurua. Beharren arabera laguntzak bideratuta.
1.0.5 arloa. Euskararen erabilera sustatzeko estrategiaren komunikazioa					
1.0.5.14. Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-talderi	Planaren komunikazio orokorra, herritarrei zein entitateei. Zuzeneko komunikazioa, udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte eta abarrei.	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazio-bideak zehaztu eta gauzatu. Udalak kontratatutako enpresa nagusiei euskara planaren eta eurekiko harremanetan euskara sustatzeko strategiaren berri ematea: Udalaren asmoa dela eurekiko harremanetan euskara sustatzea. 	Herritarrak Udalarekin harreman ohikoa duten entitateak	Komunikazioa Euskara Departamentuak	Komunikazioa jasotako enpresa kopurua.
1.0.6 arloa. Hizkuntza-klausulak					
1.0.6.16. Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira	Kontratuaren irizpideen bilduma osatu eta eskuragarri jarri.	Bilduma osatzeko planteamendua egin: ereduen bilduma?, Pleguen?? / plegu teknikoak?? bilduma bat eta haren aurkibidea osatu? Bilduma osatu.	Departamentu guztiak	Euskara Kontratazioa	Bilduma osatuta. Bilduma osatzen duten kontratu desberdinen irizpide-txostenen kopurua
1.0.6.16. Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira	Xedean hizkuntza-erabilera duten kontratu guztietan hizkuntza-klausulak txertatzen direla bermatu.	Xedean hizkuntza erabilera duten kontratuak identifikatzeko eta bereizteko modua zehaztu.	Kontratuak egiten dituzten udalkide guztiak	Kontratazioa Euskara Departamentuak	Klausulak txertatutako kontratuen ehunekoa.

1.0.6.18 Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetao hizkuntza-klausulen betetze-mailari	Kontratuetao hizkuntza-klausulen jarraipen sistematikoa egiteko prozedura erraz eta eraginkorra diseinatu eta inplementatu.	<ul style="list-style-type: none"> • Orain arteko bideak aztertu proposamena lantzeko: Bergarako Udalarena, GFA lantzen dabilena... • Proposamen berria diseinatu. • Proposamena Aginte organoan onartu. 	Kontratuak egiten dituzten udalkide guztiak	Kontratazioa Euskara departamentuak	Jarraipena egiteko prozedura. Jarraipena egindako kontratuen %
1.0.7 arloa². Hizkuntza kalitatea					
1.0.7.48. Udal idatzietan euskararen kalitatea zaintzen da.	Zabalpen handiko errotulazio, ohar eta abarretan euskara-kalitatea zaintzea, bai udalaren idatzietan eta baita subkontratutako enpresek jartzen dituztenetan ere eta baita lurzorua okupatzeko baimenen kasuan ere. Betetze mailaren berri jasotzeko jarraipen sistema adostea.	Kalitatea bermatzeko prozedura zehaztu, baita seinaleak/ohar laburrak direnean ere. Eta baita subkontratutako enpresen kasuan ere eta lurzorua okupazio kasuetan (feria/azoketako oharak...) ere. -Hornitzaileei, kontratatutako enpresei, postuak jartzen dituztenei baldintzetan txertatu eta jakinarazi -Betetze-mailaren jarraipena egitea	Udalkide guztiak	<ul style="list-style-type: none"> • Lurraldea: Brigada, Udaltzaingoa • Euskara 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara Zerbitzuak jasotako kontsulta kopurua • Jasotako kexa kopurua. • Kalitatea neurtzeko laginketa???

² Arlo hau ez dago KEMENen jasoia baina gurean jasotzea pentsatu dugu.

2.- ERABILERA

2.1.- ZERBITZU HIZKUNTZA

<u>Planeko adierazlea(k)</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Faseak, azalpenak, oharrak</u>	<u>Hartzaileak, beste partaideak</u>	<u>Arduradunak</u>	<u>Ekintzaren adierazleak</u>
2.1.2 arloa. Herritarrekiko harremanak.					
2.1.2.26. Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	Ekitaldien hizkuntza informazioa jasotzea erraztu eta sistematizatzerik izango genukeen aztertu	1-Identifikatu ekitaldien hizkuntza jasotzeko dauden bideak (agenda, outlook..) 2-Sistematizatu hizkuntzaren berri jasotzeko modua	-udal langileak -herritarrak	Herritarren arloa: <ul style="list-style-type: none"> • Kultura, kirola??? • Berdintasuna, • Euskara -Informatika zerbitzua.	Ekitaldien hizkuntza
<ul style="list-style-type: none"> • 2.1.2.27 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak • 2.1.2.28 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz • 2.1.2.30 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz 	Idatzien irteera-erregistroko hizkuntza datuak egoki jasotzeko bidea lantzea.	-Idatzien sarrera/irteera erregistroan hizkuntza datuak egoki jasotzeko irizpideak zehaztu. -IZFERi hizkuntzaren gelaxka hutsik uztea eskatu -Langileei irizpideak jakinarazi	Udal langileak	<ul style="list-style-type: none"> • BAZ • Euskara • Idazkaritza • Irteerak ematen dituzten langile guztiak 	Erregistroko sarrera eta irteeren hizkuntza datuak zuzen.
<ul style="list-style-type: none"> • 2.1.2.27 Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen eta eskuratzen zaizkie dokumentuak • 2.1.2.28 Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz • 2.1.2.30 Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz 	Euskaraz egin duen herritarrari euskara hutsean erantzuteko baliabideak aztertu eta abian jarri.	Egoeraren azterketa egin: informazio-iturriak, irizpidea ez betetzearen arrazoiak, egon litezkeen aukerak... -Aplikatibo berrietan (Eskua, Sareko..) euskarazko eta elebitakoa bereizteko moduak bideratu -Behar den kasuetan formazioa eskaini langileei.	Udalera euskaraz zuzentzen diren herritarrak	<ul style="list-style-type: none"> • Idazkaritza • Kontuhartzaitza • Euskara • Informatika 	<ul style="list-style-type: none"> • Egoeraren gaineko txostena. • Aplikatiboan bereizten da euskarazkoa eta elebitakoa bai/ez • Formazioa jaso duten langileen kopurua

2.2.- LAN HIZKUNTZA

<u>Adierazlea(k)</u>	<u>Ekintza</u>	<u>Faseak, azalpenak, oharra</u>	<u>Hartzaileak, beste partaideak</u>	<u>Arduradunak</u>	<u>Ekintzaren adierazleak</u>
2.2.1 arloa. BARNE-HARREMANAK					
2.2.1.32 Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	Obra eta Zerbitzuak sailean ahozko erabilera sustatzeko bideratzen diren sentiberatze-bilerekin jarraitu.		Saileko langileak	Euskara Arloko buruak	Partaide eta bilera kopurua.
2.2.4 arloa. BALIABIDE INFORMATIKOAK.					
2.2.2.41 Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	Enpresekin euskara hutsezko harremana sustatu. Kontuan hartu azken aldian hartutako konpromisoak ere: HARIXA hitzarmena...	Udalarekin ohiko kontratuak dituzten enpresa nagusiei mezua bidali bakoitzaren ezaugarrien arabera, harremanak euskaraz sustatzeko.	Enpresak	Euskara Departamentu buruak.	
2.2.4.45 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	Lanpostu bakoitzeko baliabide informatiko nagusien eta horien hizkuntzaren inbentarioa egin eta mantentzea	-Lanpostu guztietako baliabide informatikoen hizkuntzaren inbentarioa egin, euskaraz jartzeko aukerak aztertu eta euskaraz martxan jartzeko urratsak eman: udal informatikariekin edota IZFERa eskaria eginez (UEMAko udalerriekin batera)	Udal-langileak	<ul style="list-style-type: none"> • Informatika • IZFERekiko solaskidea • Idazkaritza • Departamentu buruak • Euskara departamentua 	Inbentarioan jasotako lanpostu kopurua. Euskaraz martxan dauden programa eta aplikazioak
2.4.4.45 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	Udal barruko erabilerako aplikazioak euskaraz instalatzea, aukera dagoen guztietan.		Udalkide guztiak.	<ul style="list-style-type: none"> • Informatika. • Departamentu buruak. 	Euskaraz instalatu diren aplikazioen %.
2.4.4.45 Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak.	Hizkuntza klausulak ezartzea: ordenagailuak, aplikazio informatikoak, telefonoak eta antzeko baliabideak erosterakoan edo moldatzean hizkuntza klausulak ezartzea.	Hizkuntza klausulak eskatzea Euskara departamentura Hizkuntza klausulak ezartzea.	Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten kide guztiak.	<ul style="list-style-type: none"> • Informatika • Departamentu buruak. • Euskara 	Hizkuntza klausulak ezarritako kontratu kopurua

Hainbat adierazle.	Udalean erabili ohi diren aplikazioetan (SAREKO, ESKUA, OMESSA...) hizkuntza hautatzeko edo hizkuntza adierazleak lortzeko eskaintzen dituzten aukeren informazioa jaso.	Udalean erabiltzen diren aplikazioen inbentarioa egin. Horien ezagutza dutenekin harremanetan jarri eta informazioa jaso. Txostena idatzi.	Batzorde eragilea. Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten kide guztiak.	<ul style="list-style-type: none"> • Idazkaritza • Kontuhartzaitza • IZFErekiko solaskidea • Informatika • Euskara 	Informazio-txostena.
2.2.5 arloa. SORTZE HIZKUNTZA.					
2.2.5.47. Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak.	Itzulpenen noranzkoaren gaineko txostena egitea, sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko.	Gaztelaniatik euskarara itzultitako testuen gaineko txostena egitea.	Batzorde eragilea	Euskara	Euskara

6.- PLANA KUDEATZEKO EGITURA

Honako egitura eratu da planaren kudeaketa eraginkorra bideratu nahirik:

1.- BATZORDE ERAGILEA:

- **Osaera:** udaleko Koordinazio-batzordeko kideak, komitearen ordezkaria, oposizioko ordezkariak, udaleko erabilera planeko euskara teknikaria, UEMAko teknikaria, Euskara zerbitziburua.
- **Egitekoak.** Planaren zuzendaritzaz arduratuko da eta, besteak beste, honako betekizunak izango ditu:
 - Plan Estrategikoaren proposamena onartzea, aginte organoetara bideratu aurretik. Aurten.
 - Hizkuntza irizpideak onartzea, aginte organoetara bideratu aurretik. Aurten.
 - Hizkuntza irizpideen aginte-panela onartzea, aginte organoetara bideratu aurretik. Aurten.
 - Urteko kudeaketa plana onartzea, aginte organoetara bideratu aurretik. Urtero.
 - Kudeaketa planaren jarraipena egitea, egokitzea... (3 hilean behin)
 - Hizkuntza irizpideen adierazleen aginte-panelaren jarraipena egitea (6 hilean behin).
 - Gai zalantzazkoetan irizpideak finkatzea (3 hilean behin)
 -
- **Bileren maiztasuna:** 3 hilean behin

2.- TALDE TEKNIKOAK:

- **Osaera:** Euskara arloko ordezkari politikoa, planeko euskara teknikaria, UEMAko teknikaria eta Euskara zerbitziburua
- **Egitekoak.** Planaren lanketa teknikoaz arduratuko da:
 - Plan Estrategikoan eta Kudeaketa planean jasotako jarduerak gauzatzeko gidaritza, koordinazioa eta jarraipen teknikoa egitea.
 - Batzorde Eragilearekiko aholkularitza funtzioa betetzea eta bertan onartzen direnak landu eta bideratzea.
 - Udalaz gaindiko elkarlana bideratzea: UEMArekikoa, Udalekin programakoa, bailara mailakoa, Jaurlaritzarekikoa...
- **Bileren maiztasuna:** hilean behin, gutxienez.

3.- ARLOETAKO BILERAK

- **Osaera:** Arloko politikariak eta teknikariak
- **Egitekoak:**
 - Kudeaketa planaren betetzearen berri ematea
 - Hizkuntza irizpideen aginte-panelaren jarraipena.
 - Batzorde eragilerara bideratzeko proposamenak lantzea
- **Bileren maiztasuna:** 6 hilean behin, gutxienez

4.- GAIKAKO LANTALDEAK. Epe mugatukoak zein iraunkorrak. Balizko taldeak:

- Informatika
- Kontratazioa eta enpresekiko harremanak
- Komunikazioa
-

5.- LANGILE GUZTIEKIKO KOMUNIKAZIOA. Balizko baliabideak:

- Departamentukako bilerak
- Beste euskarri batzuk:

7.- ERANSKINAK

7.1. Eusko Jaurlaritzak proposatutako adierazleen panela (KEMEN metodologia)

- Jarraipena egiteko Aginte-paneleko adierazleak, ponderazioekin.
- Adierazle sistemako adierazle guztiak, ponderazioekin.

7.2. Diagnostikoa egiteko erabilitako galdetegiak: langileei pasatutakoa eta Euskara Zerbitzuak behaketaz eta datuak jasota betetakoa.

7.3. 2023-2027rako Plan Estrategikoaren laburpena (langile guztiei banatzekoa)

7.1. ERANSKINA

a) Planaren jarraipena egiteko Aginte-paneleko adierazleak, ponderazioekin

Taula honetan Jaurlaritzak Planaren jarraipena egiteko Aginte Panelerako finkatu dituen 14 adierazleak agertzen dira bakoitzari eman zaion haztapen edo ponderazio mailarekin. Adierazle hauen informazioa Jaurlaritzara bidali behar da gutxienez planaren erdian eta amaieran.

Ardatza	Ardatzaren haztapen %	Eremua	EremuareNn haztapen %	Arloa	Adierazlearen kodea	Adierazlea	Adierazlearen haztapen %	Galdera	Galderaren haztapena adierazlearekiko		
KUDEAKETA	35		Ez dagokio	EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	1.0.1.2	Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	20	E2	% 20		
				LIDERGOA	1.0.2.3	Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	20	E3.1	% 6,66		
								E3.2	% 6,66		
								E3.3	% 6,66		
					1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezten.	25	E4	% 25		
				LANGILEAK	1.0.3.7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	25	L2	% 25		
HIZKUNTZA-KLAUSULAK	erabilera1.0.6.18	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratueta hizkuntza-klausulen betetze-mailari.	10	E12	% 10						
KUDEAKETA % 100											
ERABILERA	65	ZERBITZU-HIZKUNTZA	30	HERRITARREKIKO HARREMANAK	2.1.2.24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen.	20	L8	% 20		
					2.1.2.25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz.	30	L.9.1	% 30		
					2.1.2.26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira.	20	E18.1	% 10		
								E18.2	% 10		
					2.1.2.27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak.	15	E19	% 15		
					2.1.2.28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz.	15	E20	% 15		
		ZERBITZU-HIZKUNTZA % 100									
		LAN-HIZKUNTZA	70	BARNE-HARREMANAK			2.2.1.32	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da.	35	L13	% 35
							2.2.1.34	Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira.	25	L15	% 25
							2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	15	E25	% 15
							2.2.5.46	Euskaraz sortzen dira dokumentuak.	25	E28	% 25
LAN-HIZKUNTZA % 100											
ERABILERA % 100											

b) Adierazle sistemako adierazle guztiak, ponderazioekin.

Taula honetan KEMENeko 47 adierazleak agertzen dira bakoitzari emandako haztapen edo ponderazio mailarekin.

KEMEN. Haztapen-indize orokorrak: (* gorri kolorekoak dira aginte paneleko ezinbesteko 14 adierazleak)

EREMUA	ARDATZA	ARLO GILTZARRIA	Arlo giltzarriaren haztapen %	Adierazlearen kodea	ADIERAZLEA	Adierazlearen haztapen %	Galderaren kodea	Galderaren haztapena %	
KUDEAKETA %35		EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA	%20	1.0.1.1	Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du	% 40	E1	% 40	
				1.0.1.2	Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da	% 60	E2	% 60	
		LIDERGOA	%25	1.0.2.3	Arduradunek (politiko eta teknikoek) parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean	% 35	E3.1	% 11.66	
				1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, erabilera planean finkatutako helburuak bete daitezzen	% 35	E3.2	% 11.66	
				1.0.2.5	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, erabilera planean zehaztutako moduan	% 30	E3.3	% 11.66	
		LANGILEAK	%20	1.0.3.6	Langileei ematen zaie informazioa erakundeak erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten	% 30	E4	% 35	
				1.0.3.7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte	% 40	E5	% 30	
				1.0.3.8	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak	% 20	E6	% 15	
				1.0.3.9	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan	% 10	L1	% 15	
				1.0.3.10	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz	-	L2	% 40	
		GAITASUNA	-	1.0.4.11	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	-	L3	% 20	
				1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	-	L4	% 10	
				1.0.4.13	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko	-	L5.1	-	
		ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIA	%15	1.0.5.14	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldeei	% 70	L5.2	-	
				1.0.5.15	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze ekimenetan parte hartzen du	% 30	L6	-	
		HIZKUNTZA-KLAUSULAK	%20	1.0.6.16	Kontratuaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira	% 15	L7	-	
				1.0.6.17	Dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulak txertatzen dira	% 10	E7	-	
				1.0.6.18	Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetako hizkuntza-klausulen betetze-mailari	% 45	E8	% 70	
				1.0.6.19	Jarraipen sistematikoa egiten zaio dirulaguntza eta hitzarmenaren hizkuntza-klausulen betetze-mailari	% 30	E9.1	% 15	
		GUZTIRA	%100				E9.2	% 15	

EREMUA	ARDATZA	ARLO GILTZARRIA	Arlo giltzarriaren haztapen %	Adierazlearen kodea	ADIERAZLEA	Adierazlearen haztapen %	Galderaren kodea	Galderaren haztapena %		
ERABILERA %65	ZERBITZU HIZKUNTZA %30	IRUDIA	%20	2.1.1.20	Erakundearen errotuluak (finkoak zein behin-behinekoak), eta ikus-entzunezkoak euskaraz daude	% 20	E14.1	% 8		
				2.1.1.21	Erakundearen argitalpen, iragarki eta publizitatea euskaraz daude	% 20	E14.2	% 12		
				2.1.1.22	Erakundeak euskara erabiltzen du agerraldi instituzionaletan	% 30	E15.1	% 12		
				2.1.1.23	Erakundeak euskaraz dauzka webgunea eta sare sozialak	% 30	E15.2	% 8		
		HERRITARREKIKO HARREMANAK	%80	2.1.2.24	Langileek euskaraz jarduteko eskaintza aktiboa egiten diete herritarrei, ahoz; herritarrek hizkuntza aukeratu baino lehen	% 20	E16	% 30	E17.1	% 9
				2.1.2.25	Eskatzen duten herritarrei euskaraz ematen zaie zerbitzua, ahoz	% 25	E17.2	% 9	L8	% 20
				2.1.2.26	Herritarrentzako ekitaldiak eta ikastaroak euskaraz eskaintzen dira	% 20	E17.3	% 6	L9.1	% 25
				2.1.2.27	Herritarrei euskaraz edota ele bietan bidaltzen zaizkie dokumentuak	% 15	E17.4	% 6	L9.2	-
				2.1.2.28	Herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentuei edota euskararen aldeko hautua egin duten herritarrei euskaraz erantzuten zaie, idatziz	% 20	E18.1	% 10	E18.2	% 10
				2.1.2.29	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, ahoz	-	E19	% 15	E20	% 20
		2.1.2.30	Herritarrak euskaraz zuzentzen zaizkio erakundeari, idatziz	-	L10	-	L11	-		
		GUZTIRA	%100				E21	-		
		LAN- HIZKUNTZA %70	BARNE-HARREMANAK	%30	2.2.1.31	Lan-bilerak euskaraz egiten dira	% 20	E22	% 10	
					2.2.1.32	Lankideen arteko ahozko lan-harremana euskaraz izaten da	% 25	L12	% 10	
	2.2.1.33				Lankideen arteko ahozko harreman ez-formala euskaraz izaten da	-	L13	% 25		
	2.2.1.34				Erakunde barruko idatzizko lan-komunikazioak euskaraz egiten dira	% 20	L14	-		
	2.2.1.35				Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian	% 15	L15	% 20		
	2.2.1.36				Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian	% 15	E23	% 15		
	2.2.1.37		Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	% 5	E24	% 15				
	KANPO-HARREMANAK		%20	2.2.2.38	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	% 30	L16	% 5		
				2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	% 40	L17	% 30		
				2.2.2.40	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	% 15	E25	% 40		
				2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak	% 15	L18	% 15		
	PRESTAKUNTZA		%30	2.2.3.42	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei	% 35	E26	% 15		
				2.2.3.43	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	% 45	E27	% 35		
				2.2.3.44	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei	% 20	L19	% 45		
	BALIABIDE INFORMATIKOAK		%15	2.2.4.45	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten aplikazio informatikoak	% 100	E28	% 20		
	SORTZE-HIZKUNTZA		%20	2.25.46	Sortze hizkuntza	% 100	L20	% 100		
	GUZTIRA	%100				L21	% 100			

ADIERAZLEEN DEFINIZIOAK ETA GALDETEGIETAKO GALDERAK

AZALPENA: Dokumentu honetan KEMEN metodologiako 47 adierazleen gaineko azalpenak agertzen dira: adierazlearen definizioa, jasotzeko modua eta abar.

Haren ondoren, adierazlea jasotzeko galdetegian txertatutako galdera zehatza eta erantzunen aukerak. “Galdera zenbakia” zutabean, galdera batzuk E letra dute eta beste batzuk L. Lehenengoak Erakundeak, hau da Udalak, erantzutekoak dira eta bigarrenak Langileek.

1. Ardatza: KUDEAKETA (% 30)

1.0.1. arloa: EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA (% 20)

1.0.1.1 adierazlea: Erakundeak erabilera planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du. (% 40)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.1.1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du.	<p>Adierazle honen bitartez adierazi behar da erakundeak erabilera plana kudeatzeko sistema egituraturik duen, eta, baiezkotan, nolakoa den sistema hori.</p> <p>Euskararen normalizaziorako erreferentia izango den sistema egituratuaren egitekoak ondokoak dira, besteak beste: erakundearen hizkuntza-helburuak zehaztea, helburu horiek lortzera bideratutako estrategia antolatzea, erabilera planak diseinatzea eta adostea, ekintzen proposamenak lantzea, planak kudeatzea, eta hauei jarraipena egitea.</p> <p>Kontuan hartu behar da, nahi eta nahi ez, Euskal Sektore Publikoko erakunde guztiek duten egoera, tamaina eta berezko ezaugarriengatik ez dagoela sistema egituratu hori modu bakarrean ulertzetik. Hau da, erakunde bakoitzak bere egoerara eta beharretara egokitu behar du, eta, beraz, hainbat forma hartu ahalko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> Langileek osatutako ohiko euskara batzordea edo taldea. Langile zein arduradunek (politikoak zein teknikoak) osatutako euskara batzordea edo taldea, noizean behin biltzen dena eta euskararen normalizaziorako oso eraginkorra ez dena. Zeharkako izaera duen egitura, normalizazio teknikariak, eta atal, zerbitzu edota arlo desberdinetako langile eta arduradunek osatua (arduradun politikoak, teknikoak edo eurek propio izendatutako pertsonak). Berariazko egitura baten beharrik ez duten erakundeak, euskararen normalizazioa guztiz barneratuta dutelako funtzionatzeko modu bezala. Hori bermatzeko, ondo zehaztuta dute jardueren planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa noiz, nork eta nola egin behar den. Horrek hizkuntzen inguruko bisioa modu eraginkorrean lortzen laguntzen dio erakundeari.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E1	Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituraturik? Eta baiezkotan, nolakoa da sistema hori?	1	Betetze-maila oso baxua	Kudeaketarako egiturarik ez, egiten dena normalizazio teknikariaren esku.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100; PBE1 = puntuazioaren balioa X 0.40 Erantzuna "9" bada, (-1), 1. arloari dagokion puntuazioa, soilik E2 adierazlearen
		2	Betetze-maila baxua	Langile boluntarioekin osatutako jarraipen-taldea bai, erabaki ahalmen handirik ez, eta ez oso operatiboa.	25	
		3	Betetze-maila ertaina	Langile zein arduradun politiko eta teknikoek osatutako taldea, baina operatibitate-maila baxuarekin.	50	
		4	Betetze-maila altua	Zeharkako izaera duen kudeaketa-sistema egituratua dago, erabakitze ahalmenarekin eta operatibitate-maila egokiarekin.	75	
		5	Betetze-maila oso altua	Euskararen kudeaketa erabat integratua dago erakundearen atal guztien ohiko kudeaketan, nahiz eta erabilera planaren kudeaketarako berariazko egiturarik ez izan.	100	

		9	Besterik/ezin ebaluatu	Erakundearen egoera ez da aurreko erantzun-aukera bakar batera ere hurbiltzen edota ezin da betetze-maila ebaluatu.	(-1) Baztertzaila	emaitzarekin kalkulatu da.
--	--	---	------------------------	---	----------------------	----------------------------

1.0.1.2 adierazlea: Erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da. (% 60)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.1.2	Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da.	<p>Adierazle honen bidez aztertuko da, erabilera planean zehaztutako moduan, indarrean dauden erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei jarraipen sistematikorik egiten zaien; hau da, aurreikusitako ekintzak eta neurriak gauzatzen diren, dagokionean ekintza horien zein hizkuntza-irizpideen betetze-maila ebaluatzen den eta ondoriozko egokitzapenik egiten den.</p> <p>Hizkuntzak kudeatzeak esan nahi du erakundeak plan estrategikoan hizkuntza-helburuak zehaztu behar dituela, eta horiek lortze aldera, urteko kudeaketa-planen bidez, ekintza, irizpide eta mekanismoak ezarri behar dituela. Gainera, horien jarraipena egin behar du (helburuen eta adierazleen jarraipena), eta ikusitako emaitzen arabera helburu berriak ezarri, planteamendua aldatu, mekanismoak egokitu, etab. Etengabeko hobekuntza lortzera bideratuta dago, beraz, jarraipen sistematikoa.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E2	Jarraipen sistematikoa egiten zaie plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei?	1	Batere ez	Ez da ez kudeaketa-planaren ezta hizkuntza-irizpideen jarraipenik egiten, ez eta plan estrategikoarena. Horrez gain, ez da plangintzaldiaren erdiko edo amaierako ebaluaziorik egiten.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100.
		2	Baxua	Ez da kudeaketa-planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipenik egiten; plan estrategikoarena bakarrik, plangintzaldiaren amaierako ebaluazioaren bidez.	25	
		3	Ertaina	Ez da kudeaketa-planaren eta hizkuntza-irizpideen jarraipenik egiten; bai, ordea, plan estrategikoarena, plangintzaldiaren erdiko eta amaierako ebaluazioaren bidez.	50	Erantzuna "9" bada, (-1), 1 arloari dagokion puntuazioa, soilik E1 adierazlearen emaitzarekin kalkulatu da.
		4	Altua	Plan estrategikoa ebaluatzeaz gain, kudeaketa-planaren jarraipena egiten da, ekintzen eraginkortasuna ezagutu eta egokitzapenak egiteko.	75	
		5	Oso altua	Plan estrategikoa ebaluatzeaz gain, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen etengabeko jarraipena egiten da, eraginkortasuna uneoro neurtu eta egokitzapenak edozein momentutan eginez.	100	E1 eta E2 emaitzak 9 badira, arloari dagokion puntuazioa Kudeaketa ardatzaren beste arloen artean birbanatuko da proportzionalki.
		9	Ez dagokio/ezin ebaluatu	Erakundearen egoera ez da aurreko erantzun-aukera bakar batera ere hurbiltzen edota ezin da betetze-maila ebaluatu.	(-1) baztertzaila	

1.0.2. arloa: LIDERGOA (% 25)

1.0.2.3 adierazlea: Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute erabilera planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. (%35)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.2.3	Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean.	Adierazle honekin neurtuko da arduradunen (politiko zein tekniko) parte-hartzea zenbatekoa den erabilera plana lantzeko. Egindako bileretara bertaratzea eta prozesuan izandako parte-hartzea neurtuko da: Bertaratzea bileretako akten bidez edo beste bide batzuetatik kalkula daiteke; parte-hartze motak, aldiz, erakundearen euskararen normalizazio prozesuan parte hartzen duten eragileen ezagutzan eta pertzepzioan oinarrituta (balorazio fitxak, galdetegiak... erabiliz).

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E3.1	Zenbat bilera egiten ditu urtean zehar erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planen kudeaketarako?	1	Batere ez	0 bilera.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE3.1 = puntuazioaren balioa X (0.35/3)
		2	Gutxi	1 eta 3 artean.	25	
		3	Tarteka	4 eta 6 artean.	50	
		4	Nahikoa	7-12 artean.	75	
		5	Asko	12 baino gehiago.	100	
E3.2	Zenbaterainokoa izan da arduradun politiko zein teknikoek bertaratzea antolatutako bilera horietara?	1	Oso txikia	Ez da bilerarik egiten, ez da arduradunik bertaratzen edota arduradunen urteko asistentzia-maila % 20 baino baxuagoa da.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE3.2 = puntuazioaren balioa X (0.35/3)
		2	Txikia	Arduradunen asistentzia-maila % 20-39 artean.	25	
		3	Ertaina	Arduradunen asistentzia-maila % 40-59 artean.	50	
		4	Altua	Arduradunen asistentzia-maila % 60-80 artean.	75	
		5	Oso altua	Arduradunen asistentzia-maila % 80 baino altuagoa.	100	
E3.3	Zenbateraino hartzen dute parte erakundeko arduradun politiko zein teknikoek prozesu osoan; hau da, plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinu, garapen eta jarraipenean?	1	Batere ez	Ez dute parte hartzen erabilera planaren diseinu, garapen eta jarraipenean.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE3.3 = puntuazioaren balioa X (0.35/3)
		2	Gutxi	Prozesuari buruzko informazioa jasotzera mugatzen dira.	25	
		3	Erdizka	Planaren garapen eta jarraipenerako ardurak banatzen dituzte eta adostutakoa betearazten dute, hala eskatzen zaienean bakarrik.	50	
		4	Nahikoa	Zenbait ekarpen egiten dituzte edota zenbait ardura hartzen dute, baina ez modu sistematikoan; hau da, ez dute euskararen kudeaketa berezko eginkizuntzat hartzen.	75	
		5	Asko	Ekarpenak egiten dituzte, beren ardurak betetzen dituzte eta gainerako arduradunei eta langileei egin beharrekoa betearazten diete, modu sistematikoan.	100	

Haztapenerako: E 3.1. = % 35/3 ; E3.2. = % 35/3 ; E 3.3. = % 35/3

1.0.2.4 adierazlea: Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, eplan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten. (% 35)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.2.4	Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezten.	<p>Adierazle honek esango digu erakundeko arduradun politiko zein teknikoek nolako jarrera daukaten erabilera planean finkatutako helburuak lortzeko begira: jarrera aktiboa ote duten hizkuntzen kudeaketa egiterakoan (hau da, erakundearen ordezkari gisa euskararekiko jarrera aitzindaria erakusten duten).</p> <p>Arduradunen jarrera neurtzeko hainbat arlori erreparatuko diegu, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lidergoa agertzen ote duten erabakietan. - Euskararekiko erakundearen xedea eta ikuskera (bisioa/estrategia...) zein diren badakiten eta onartzen duten. - Estrategia eta helburuak lortzen inplikatzeko diren, eta horretarako foroetan, bileretan... parte hartzen duten. - Euren kargupeko pertsonak euskararen normalizazioan inplikatzeko dituzten eta sustapen-lana egiten ote duten. - Erabilera planean zehaztutako helburuak lortzeko behar besteko tresnak eta baliabideak jartzen dituzten. - Erakundearen hizkuntza-irizpideak betetzeko jarraipena egiten ote duten. - Euskaraz lan egiten duten eta lan eragiten dieten beren lankide guztiei; izan ere, euskararen erabileraren normalizazioarekin konpromisorik sendoena euskara bera ahozko eta idatzizko funtzioetan erabiltzea eta erabilaraztea da. - Planean zehaztutakoa bete ezean neurri zuzentzaileak martxan jartzen dituzten...

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E4	Plan estrategiko eta kudeaketa-planen helburuak betetze aldera, nolako proaktibotasunarekin jokatzeko erakundeko arduradun politikoek eta teknikoek?	1	Bakar batek ere ez edo oso gutxiak	Erabilera planean inplikatu beharreko erakundeko arduradun politiko eta teknikoek % 20k baino gutxiagok du jarrera proaktiboa.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE4 = puntuazioaren balioa X 0.35
		2	Gutxiak	Jarrera proaktiboa dutenak % 20-39 artean.	25	
		3	Batzuek	Jarrera proaktiboa dutenak % 40-59 artean.	50	
		4	Gehienek	Jarrera proaktiboa dutenak % 60-80 artean.	75	
		5	Denek edo ia denek	% 80k baino gehiagok du jarrera proaktiboa.	100	

1.0.2.5 adierazlea: Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan. (% 30)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.2.5	Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan.	<p>Adierazle honekin aztertuko da erabilera planean zehaztutako adierazleei buruzko informazioa jasotzen den, horretarako zehaztutako metodologiari jarraituz.</p> <p>Informazio-bilketa hori euskara teknikarien eskuetan jartzea zama astunegia izan daiteke, horregatik sistema egituratua bilatu behar da datuen arduradunen inplikazioa lortzeko.</p> <p>Erakunde bakoitzak erabaki beharko du zein den berarentzat prozedurarik egokiena, berezko ezaugarriak kontuan hartuta, erabilera planean zehaztutako adierazleei buruzko informazioa biltzeko. Ahal delarik ere, praktika egokiena eta eraginkorrena da erakundeetan betetzen den funtzioaren arabera banatzea adierazleei buruzko informazioa jasotzeko ardura.</p> <p>Hala eta guztiz ere, erakunde mota, tamaina eta osakeraren arabera moldatu behar du bakoitzak bere prozedura.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E5	Dagozkien arduradunek biltzen dituzte plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako adierazleei buruzko datuak?	1	Batere ez edo oso gutxitan	Jaso beharreko informazioaren % 20 baino gutxiago jasotzen dute.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE5 = puntuazioaren balioa X 0.30
		2	Gutxitan	Jaso beharreko informazioaren % 20-39 artean.	25	
		3	Erdizka	Jaso beharreko informazioaren % 40-59 artean.	50	
		4	Gehienetan	Jaso beharreko informazioaren % 60-80 artean.	75	
		5	Beti edo ia beti	Jaso beharreko informazioaren % 80 baino gehiago.	100	

1.0.3. arloa: LANGILEAK (% 20)

1.0.3.6 adierazlea: Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten. (% 30)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.3.6	Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten.	<p>Adierazle honen bidez bi arlo neurtuko dira:</p> <p>Batetik, langileei erabilera planari eta hizkuntza-irizpideei buruzko azalpenik ematen zaien neurtuko da. Komunikazioari buruzko adierazlea da, finean: erabilera planaren eta irizpideen berri ematen den erakunde barnean (bilera, zirkular, barne-komunikazio, langile berrientzako hizkuntza harreraren bidez...).</p> <p>Bestetik, erakundeko langileei galdetuko zaie ea argi duten beren eguneroko jardunean zein hizkuntza-irizpide bete behar dituzten. Adierazleen balioa lortzeko bi galderen erantzunak berdin ponderatzen dira.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E6	Langileei ematen zaie erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideei buruzko informaziorik?	1	Batere ez	Ez da erakundeko erabilera planaren eta hizkuntza-irizpideen komunikaziorik egiten langileen artean.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posibleekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE6 = puntuazioaren balioa X 0.15
		2	Gutxi, zeharka bakarrik	Bai, erabilera plan eta hizkuntza-irizpideen zabalkunde egiten da komunikazio orokorren bidez (zirkularra, barne-komunikazioa...).	25	
		3	Erdizka, zuzenean, lehentasunezkoak diren langileen erdiei baino gutxiagori	Bai, komunikazio orokorren bidez egiteaz gain, hizkuntza-irizpideen eta erabilera planaren zuzeneko komunikazioa egiten zaie planean lehentasunezkoak diren edota hasi berriak diren langileei (horien erdiei baino gutxiagori), berariazko bilera edo saioen bitartez: aldiari aldiko pilulak, harrera-protokoloa, aurkezpenak, lan- zein trebakuntza-saioak...	50	
		4	Gehienei, zuzenean lehentasunezkoak diren langileen erdiei baino gehiagori	Bai, komunikazio orokorren bidez egiteaz gain, hizkuntza-irizpideen eta erabilera planaren zuzeneko komunikazioa egiten zaie planean lehentasunezkoak diren edota hasi berriak diren langileei (horien erdiei baino gehiagori), berariazko bilera edo saioen bitartez: aldiari aldiko pilulak, harrera-protokoloa, aurkezpenak, lan- zein trebakuntza-saioak...	75	
		5	(Ia) guztiei, zuzenean langile guztiei, erabilera planak zuzenean eragiten dien kontuan hartu gabe	Bai, komunikazio orokorren bidez egiteaz gain, hizkuntza-irizpideen eta erabilera planaren zuzeneko komunikazioa egiten zaie langile (ia) guztiei (erabilera planak zuzenean eragiten dien ala ez kontuan hartu gabe), berariazko bilera edo saioen bitartez: aldiari aldiko pilulak, harrera-protokoloa, aurkezpenak, lan- zein trebakuntza-saioak...	100	

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L1	Argi duzu zure lan-jarduneko harreman eta jardura bakoitzean zernola erabili behar dituzun hizkuntza ofizialak; hots, badakizu zein diren zure lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak?	1	Batere ez	Ez ditut ezagutzen nire lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa, erantzun hori eman duten langileen ehunekoarekin haztatuko da, modu honetara: lehenbizi, erantzun bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak kalkulatu; bigarrenik, erantzun-aukera bakoitzaren balioa biderkatu, dagokion langileen ehunekoak zati 100 balioarekin; eta azkenik, biderkadura guztien batura kalkulatu. L1PB = (((1 erantzunen ehunekoak/100) x 0) + ((2 erantzunen ehunekoak/100) x 25) + ((4 erantzunen ehunekoak/100) x 75) + ((5 erantzunen ehunekoak/100) x 100)) x 0.15
		2	Gutxi	Nire lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak azaltetik ezagutzen ditut, eta ez dut oso argi zeintzuk diren nire betebeharrak.	25	
		4	Nahikoa	Nire lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak ezagutzen ditut eta nahiko argi dut zeintzuk diren nire betebeharrak.	75	
		5	Gutziz	Nire lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak ondo ezagutzen ditut eta argi dut zeintzuk diren nire betebeharrak.	100	

Haztapena : E6 (% 15) eta L1 (%15)

Adierazle honi bi galdera dagozkie: langileentzako L1 galdera eta erakundearentzako E6 galdera. Biak berdin ponderatuta (**Haztapena: L1 = % 15 eta E6 = %15**).

1.0.3.7 adierazlea. Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte. (% 40)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.3.7	Langileek dagozkien hizkuntza-irizpideak betetzen dituzte.	Adierazle hau neurtzeko langileei eurei galdetuko zaie ea zein neurritan betetzen dituzten beren lanpostuei dagozkien hizkuntza-irizpideak.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L2	Betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpide horiek?	1	Batere ez edo oso gutxitan	Betetze-maila, % 20 baino txikiagoa.	0	L1 adierazlearen prozedura bera jarraitu behar da puntuazio-balioa kalkulatzeko L2PB=(((1 erantzunen ehunekoak/100) x 0) + ((2 erantzunen ehunekoak/100) x 25) + ((3 erantzunen ehunekoak/100) x 50) + ((4 erantzunen ehunekoak/100) x 75) + ((5 erantzunen ehunekoak/100) x 100)) x 0.40
		2	Gutxitan	Betetze-maila, % 20-39 artean.	25	
		3	Erdizka	Betetze-maila, % 40-59 artean.	50	
		4	Gehienetan	Betetze-maila, % 60-80 artean.	75	
		5	Beti edo ia beti	Betetze-maila, % 80 baino handiagoa.	100	

1.0.3.8 adierazlea. Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak. (% 20)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.3.8	Langileek betetzen dituzte kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.	<p>Adierazle honen bitartez jakingo dugu langileek zer neurritan betetzen dituzten kudeaketa-planean adostutako eginkizunak.</p> <p>Ondorengoak hartuko dira kudeaketa-planean adostutako eginkizuntzat: erakundeak finkatutako helburuak lortzeari begira langile bakoitzak bere lan-jardunean bete behar dituen horiek, bai erabilera plana aurrera eramateko, baita euskararen erabilera handitzeko ere.</p> <p>Eginkizun horiek mota honetakoak izan ahal dira, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Telefonoz eta aurrez aurre lehen hitza euskaraz egitea (herritarrekin, lankide berriekin...). • Erakunde pribatu batzuekin ahozko harremanak euskaraz izatea. • Euskaraz jasotako idatzizko komunikazioei euskaraz erantzutea. • Administrazio-izapideak euskaraz abiatzea. • Txostenak euskaraz idaztea. • Ordezkariek jendaurreko ekitaldietan euskararen erabilera bermatzea...

Galdera z enbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L3	Zer neurritan betetzen dituzu erakundeak kudeaketa-planean adostutako eta zure lan-jardunari dagozkion hizkuntza-eginkizunak (telefonoz eta aurrez aurre lehen hitza euskaraz egitea (herritarrekin, lankide berriekin...), erakunde pribatu batzuekin ahozko harremanak euskaraz izatea, euskaraz jasotako idatzizko komunikazioei euskaraz erantzutea, administrazio-izapideak euskaraz abiatzea, txostenak euskaraz idaztea...)?	9	Ez dagokit, ezin ebaluatu	Ez dagokit, ez da halako hizkuntza-eginkizunik adostu.	(-1) baztertzaila	"9" erantzun-aukera hautatu duten langileak kontuan hartu gabe, beste 5 erantzun-aukeretak bakoitza erantzundako langileen ehunekoak kalkulatu behar dira, eta ondoren, erantzun-aukera bakoitzari dagokion balioarekin biderkatu, L1 adierazlearen prozedura berdina jarraituta.
		1	Batere ez edo oso gutxitan	Betetze-maila, % 20 baino txikiagoa.	0	
		2	Gutxitan	Betetze-maila, % 20-39 artean.	25	
		3	Erdizka	Betetze-maila, % 40-59 artean.	50	
		4	Gehienetan	Betetze-maila, % 60-80 artean.	75	
		5	Beti edo ia beti	Betetze-maila, % 80 baino handiagoa.	100	$L3PB = (((1 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 0) + ((2 \text{ erantzunen ehuneko}/100 \times 25) + (3 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 50) + ((4 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 75) + ((5 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 100)) \times 0.20$ <p>Langile guztiek "9" erantzun-aukera hautatu badute, L3 adierazleari dagokion haztapen-indizearen balioa (%20), 3. arloko gainerako adierazleen artean birbanatu behar da, adierazle bakoitzak lehendik zuten pisuaren arabera</p>

1.0.3.9 adierazlea: Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan. (% 10)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.3.9	Langileek parte hartzen dute kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan.	<p>Adierazle honen bitartez jakingo dugu langileek zer neurritan parte hartzen duten kudeaketa-planean zehaztutako sustapen-ekintzetan, erakundeak halakorik antolatu badu.</p> <p>Sustapen-ekintzak mota honetakoak izan daitezke, adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabilera planaren jarraipen-ekintzak. • Trebakuntza. • Euskaraldia, Euskararen Eguna, Korrika... dela eta antolatutakoak. • Langileen arteko ahozko harremanak euskaraz izan daitezen lortzera bideratutakoak: Eusle metodologia, mintzasaioak... • Lehiaketatxoak. • Ikastaro, monografiko eta tailerrak...

Galdera z enbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L4	Zenbatetan parte hartu duzu azken hamabi hilabeteetan zure erakundeak euskararen erabilera sustatzeko antolatutako ekintzetan (monografikoak, tailerrak, planen jarraipena, euskarazko trebakuntza orokorra, mintzasaioak, Euskaraldia, Eusle metodologia, trebakuntza, plana bera gauzatzeko berenberegiz abiatutako ekintzak...)?	9	Ez dagokit, ezin ebaluatu	Ez dagokit, ez da halako ekintzarik antolatu.	(-1) baztertzaila	L3 adierazlearen prozedura bera jarraitu behar da puntuazio-balioa kalkulatzeko $L4PB = [((1 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 0) + ((2 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 25) + ((3 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 50) + ((4 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 75) + ((5 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 100)] \times 0.10$
		1	Batere ez edo oso gutxitan	Parte-hartze maila, % 20 baino txikiagoa.	0	
		2	Gutxitan	Parte-hartze maila, % 20-39 artean.	25	
		3	Erdizka	Parte-hartze maila, % 40-59 artean.	50	
		4	Gehienetan	Parte-hartze maila, % 60-80 artean.	75	
		5	Beti edo ia beti	Parte-hartze maila, % 80 baino handiagoa.	100	

1.0.3.10 adierazlea. Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz. (* ez da ponderatzen)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.3.10	Langileek iritzi positiboa dute euskararen erabilerak erakundearen duen bilakaeraz	<p>Adierazle honekin ezagutuko dugu langileek zer iritzi duten erakundeak euskararen erabilera sustatzeko burutzen ari den lanari buruz.</p> <p>Adierazle sistemara L5.1. galderaren erantzunak eramango dira, baina bakarrik <i>ondo</i> eta <i>oso ondo</i> baloratzen duten langileen ehunekoak.</p> <p>L5.2 galdera adierazleari buruzko informazio gehigarria eskuratzeari begira bakarrik dago planteatuta.</p> <p>Adierazle hau ez da kontuan hartuko erabilera plana ebaluatzeko haztaperetan.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak	Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L5.1	Nola baloratzen duzu zure erakundearen euskararen erabilera sustatzeko egiten ari den lana?	1	Oso gaizki	%	Erantzun-aukera bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak jasoko dira.
		2	Gaizki	%	
		3	Ez gaizki, ez ondo	%	
		4	Ondo	%	Aginte panelera eramango dira <i>ondo</i> eta <i>oso ondo</i> baloratzen duten langileen ehunekoak.
		5	Oso ondo	%	L5.1 adierazlearen datuak ez dira kontuan hartuko puntuazio-sistamarako
L5.2	Zergatik?	1	Gutxiegi egin delako	%	Erantzun-aukera bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak jasoko dira.
		2	Gehiegi egin delako	%	
		4	Nahikoa egin delako	%	L5.2 adierazlearen datuak ez dira kontuan hartuko puntuazio-sistemarako eta ez dira sartuko adierazle sisteman.
		5	Asko egin delako	%	

L.5.1 galderan ondo eta oso ondo erantzun duten langileen ehunekoak eramango dira adierazle sistemara, baina ez dira kontuan hartuko ponderaziorako.

L.5.2. galderaren erantzunak ez dira ez ponderatuko, ez adierazle sistemara eramango.

1.0.4. GAITASUNA (*Ez da kontuan hartzen ponderaziorako)

1.0.4.11 adierazlea. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko. (* ez da erabiliko ponderaziorako)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.4.11	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz ahoz betetzeko	Adierazle honen helburua da ezagutzea langileek beren burua gai ikusten duten lanpostuaren funtzioak ahoz euskaraz betetzeko. Adierazle sistemara <i>ondo</i> eta <i>oso ondo</i> erantzun duten langileen erantzunak eramango dira; edozelan ere, adierazle hau ez da kontuan hartuko erabilera plana ebaluatzeko haztaperetan.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
L6	Nola ikusten duzu zeure burua zure lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, ahoz?	1	Gaitasunik ez	Ez dut neure burua batere gai ikusten	%	Erantzun-aukera bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak jasoko dira.
		2	Gaitasun txikia	Nekez, zailtasun handiekin	%	
		3	Erdi mailakoa	Hala moduz, zailtasunekin	%	
		4	Gaitasun handia	Ondo	%	Adierazleen sistemara ondo eta oso ondo erantzun duten langileen ehunekoak eramango dira.
		5	Gaitasun oso handia	Oso ondo	%	L6 adierazlearen datuak ez dira kontuan hartuko puntuazio-sistamarako

Ondo eta oso ondo erantzun duten langileen ehunekoak eramango dira adierazle sistemara, baina ez dira kontuan hartuko ponderaziorako.

1.0.4.12 adierazlea. Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko. (* ez da erabiliko ponderaziorako)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.4.12	Langileak gai dira lanpostuaren funtzioak euskaraz idatziz betetzeko	Adierazle honen helburua da ezagutzea langileek beren burua gai ikusten ote duten lanpostuaren funtzioak idatziz euskaraz betetzeko. Adierazle sistemara <i>ondo</i> eta <i>oso ondo</i> erantzun duten langileen erantzunak eramango dira; edozelan ere, adierazle hau ez da kontuan hartuko erabilera plana ebaluatzeko haztaperetan.

Galdera z enbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L7	Nola ikusten duzu zeure burua zure lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, idatziz?	1	Gaitasunik ez	Ez dut neure burua batere gai ikusten.	%	Erantzun-aukera bakoitza hautatu duten langileen ehunekoak jasoko dira.
		2	Gaitasun txikia	Nekez, zailtasun handiekin.	%	
		3	Erdi mailakoa	Hala moduz, zailtasunekin.	%	
		4	Gaitasun handia	Ondo.	%	Adierazle sistemara <i>ondo</i> eta <i>oso ondo</i> erantzun duten langileen ehunekoak eramango dira; edozelan ere, L7 adierazlearen datuak ez dira kontuan hartuko puntuazio-sistemarako.
		5	Gaitasun oso handia	Oso ondo.	%	

Ondo eta oso ondo erantzun duten langileen ehunekoak eramango dira adierazle sistemara, baina ez dira kontuan hartuko ponderaziorako.

1.0.4.13 adierazlea: Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.4.13	Arduradun politikoak gai dira postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	Adierazle honen helburua da ezagutzea erakundeko arduradun politikoak zer neurritan diren gai beren postuaren funtzioak euskaraz betetzeko. Erakundeko solaskideak eman beharreko erantzuna da: erakundeko arduradun politikoak hartu (zinegotziak, sailburuak, zuzendariak...), eta adierazi horietatik zenbat diren euskaraz lan egiteko gai. Adierazle hau ez da kontuan hartuko erabilera plana ebaluatzeko haztaperetan.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E7	Erakundeko arduradun politiko nagusietatik, zenbat dira gai postuaren funtzioak euskaraz betetzeko?	1	Bakar bat ere ez edo oso gutxi	Erakundeko arduradun politiko guztien (sailburuak, zinegotziak, zuzendariak...) % 20 baino gutxiago da gai beren postuaren funtzioak euskaraz betetzeko.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. % E6 = puntuazioaren balioa Ez da ponderatzen, baina % agertuko da adierazleen sisteman.
		2	Gutxi	% 20-39 artean.	25	
		3	Erdiak inguru	% 40-59 artean.	50	
		4	Gehienak	% 60-80 artean.	75	
		5	Denak edo ia denak	% 80 baino gehiago.	100	

1.0.5.arloa: EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA (% 15)

1.0.5.14 adierazlea: Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee. (% 70)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.5.14	Erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia komunikatzen die herritar eta interes-taldee.	<p>Adierazle honek neurtuko du erakundeak euskararen erabilera sustatzeko duen estrategia zein neurritara arte komunikatzen dien herritarrei eta gainerako interes-taldee (beste administrazio publikoak, hornitzaileak, elkarteak, enpresa pribatuak, etab.).</p> <p>Komunikatzen duena ez da soilik euskara sustatu nahi duela, baizik eta erakundeak erabaki estrategiko bat hartu duela, eta bere erronken artean euskararen erabilera sustatzea dagoela. Horretara bideratu du bere plan estrategikoa eta helburu horrekin lerrokatu ditu hizkuntza-irizpideak.</p> <p>Azken finean, adierazle honen bitartez jakingo dugu erakundeak euskararen eskaintza aktiboa egiten duen ala ez, eta egiten badu, zein baliabide erabiltzen duen horretarako. Hau da, erakundeak euskararen aldeko apustu sendoa eta zintzoa egin du, konpromiso bat hartu du, eta hala jakinarazten die interes-taldee, euskara erabiltzeko gonbita luzatuz.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E8	Erakundeak komunikatzen al die herritarrei eta gainerako interes-taldee euskararen erabilera sustatzeko abian duen estrategia?	1	Batere ez	Erakundeak ez du horrelako komunikaziorik egiten.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 4 balio posiblerekin: 0, 25, 75 edo 100. PBE8 = puntuazioaren balioa X 0.70
		2	Gutxi	Erakundeak nolabaiteko komunikazioa egiten du, baina ez da sistematikoa eta, gehienetan, bereizgarri batzuk jartzera mugatzen da (langile euskaldunak antzematen laguntzen duen edozein euskarri, adibidez, mahaigainekoak, pegatinak, txapak...).	25	
		4	Nahikoa	Erakundeak bereizgarriak erabiltzen ditu eta ekimenen bat edo beste jartzen du abian (baina ez modu sistematikoan), herritarrek eta gainontzeko interes-taldeek euskaraz egin dezaten animatzeko.	75	
		5	Asko	Erakundeak komunikazio-kanpainak egiten ditu modu sistematiko eta planifikatuan, bere estrategia ezagutarazteko, eta herritarrek eta gainerako interes-taldeek euskaraz egin dezaten animatzeko.	100	

1.0.5.15 adierazlea: Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze ekimenetan parte hartzen du. (% 30)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.5.15	Erakundeak beste esperientzia batzuk ezagutzeko eta partekatze ekimenetan parte hartzen du.	<p>Adierazle honen bidez jasoko da ea erakundeak parte hartzen duen euskararen erabileraren normalizazio- eta biziberritze-arloari dagozkion beste esperientzia eta praktika on batzuk ezagutzeko eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasotzeko askotariko ekimenetan (jardunaldiak, lan-saioak, beste erakunde batzuk bisitatu, topaketak, mintegiak, Bikain ebaluazioak, AriGara plataforma...).</p> <p>Era berean, jasoko da erakundeak berak duen hizkuntzaren kudeaketa-praktikak eta ezagutza partekatze ekimenetan ere parte hartzen duen.</p> <p>Adierazlearen balioa ezagutzeko pisu desberdina duten bi galderaz baliatuko gara: lehenengoari % 70eko pisua emango zaio eta bigarrenari % 30ekoa.</p> <p>Sistematikiko puntuazioa kalkulatzeko orduan, berriz, lehenengo galderari % 25 emango zaio eta bigarrenari gainontzeko % 5a.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E9.1	Zenbatetan parte hartu du erakundeak azken hamabi hilabeteetan beste hizkuntza-esperientzia eta praktika on batzuk ezagutzeko eta euskararen normalizazioaren alorreko ezagutza jasotzeko antolatutako ekimenetan?	1	Inoiz ez	Erakundeak ez du ekimen bakar batean ere parte hartu.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE9.1 = puntuazioaren balioa X 0.15
		2	Gutxitan	Ekimen 1 eta 2 artean hartu du parte.	25	
		3	Tarteka	3 eta 6 artean.	50	
		4	Nahikoa alditan	7-9 artean.	75	
		5	Askotan	9 ekimenetan baino gehiagotan.	100	
E9.2	Zenbatetan parte hartu du erakundeak azken hamabi hilabeteetan bere hizkuntza-esperientzia eta praktika onak ezagutzera emateko ekimenetan?	1	Inoiz ez	Erakundeak ez du ekimen bakar batean ere parte hartu.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE9.2 = puntuazioaren balioa X 0.15
		2	Gutxitan	Ekimen 1 eta 2 artean hartu du parte.	25	
		3	Tarteka	3 eta 6 artean.	50	
		4	Nahikoa alditan	7-9 artean.	75	
		5	Askotan	9 ekimenetan baino gehiagotan.	100	

Haztapenerako: E 9.1. = % 25 eta E 9.2. = % 5

1.0.6. arloa: HIZKUNTZA-KLAUSULAK (% 20)

1.0.6.16 adierazlea: Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira. (% 15)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.6.16	Kontratueta hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	<p>Adierazle honen bidez aztertuko da kontratueta beharrezkoak diren hizkuntza-klausulak txertatzen diren.</p> <p>ERANTZUTTEKO JARRAIBIDEAK:</p> <p>Zenbait erakundetan kontratu kopurua oso handia izan daitekeelakoan, lagin bidez egingo da behaketa: hilabete bakoitzean sinatutako lehen kontratua hartu, eta aztertuko da ea hizkuntza-klausulak txertatu diren. Gutxienez, hamabi kontratu hartuko dira laginean (hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hilabeteko beste bat hartuko da); kopuru handiagoa ere har daiteke oinarritzat.</p> <p>Erakunderen batek sinatutako kontratu kopurua ez bada hamabira heltzen, sinatu dituen kontratu guztien arabera egin beharko du kalkulua.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E10	Zenbat kontratuk dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak?	1	Bakar batek ere ez edo oso gutxiak	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE10 = puntuazioaren balioa X 0.15
		2	Gutxiak	25	
		3	Erdiek	50	
		4	Erdiek baino gehiagok	75	
		5	Gehienek edo guztiek	100	

1.0.6.17 adierazlea: Dirulaguntza eta hitzarmeneta hizkuntza-klausulak txertatzen dira. (% 10)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
1.0.6.17	Dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausulak txertatzen dira.	<p>Adierazle honen bidez aztertuko da dirulaguntza eta hitzarmenetan hizkuntza-klausularik txertatzen den, horien xedea diren jarduerak herritarrekin harreman zuzena izatea dakartenean, edo haien objektuan hizkuntzaren erabilerak eragin handia duenean.</p> <p>ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:</p> <p>Zenbait erakundetan dirulaguntza eta hitzarmen kopurua oso handia izan daitekeelakoan, lagin bidez egingo da behaketa: hilabete bakoitzean sinatutako lehen dirulaguntza eta hitzarmena hartu, eta aztertuko da ea hizkuntza-klausulak txertatu diren.</p> <p>Gutxienez, bien artean hamabi dirulaguntza eta hitzarmen (ahal delarik, sei eta sei) hartuko dira kontuan laginketarako (hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hilabeteko beste bat hartuko da). Kopuru handiagoa ere har daiteke oinarritzat.</p> <p>Erakunderen batek sinatutako dirulaguntza eta hitzarmen kopurua ez bada hamabira heltzen, sinatu dituen dirulaguntza eta hitzarmen guztien arabera egin beharko da kalkulua.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E11	Zenbat dirulaguntza eta hitzarmenak dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak?	1	Bakar batek ere ez edo oso gutxiak	Erakundeak sinatzen dituen dirulaguntzek eta hitzarmenek ez dute hizkuntza-klausularik txertatuta, edo oso gutxiak dituzte txertatuta.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 5 balio posiblerekin: 0, 25, 50, 75 edo 100. PBE11 = puntuazioaren balioa X 0.10
		2	Gutxiak	Erakundeak sinatzen dituen dirulaguntza eta hitzarmenen erdiek baino gutxiagok dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak.	25	
		3	Erdiek	Erakundeak sinatzen dituen dirulaguntza eta hitzarmenen erdiek dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak.	50	
		4	Erdiek baino gehiagok	Erakundeak sinatzen dituen dirulaguntza eta hitzarmenen erdiek baino gehiagok dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak.	75	
		5	Gehienek edo guztiek	Erakundeak sinatzen dituen dirulaguntza eta hitzarmen gehienek edo guztiek dituzte txertatuta hizkuntza-klausulak.	100	

1.0.6.18 adierazlea: Jarraipen sistematikoa egiten zaio kontratuetoako hizkuntza-klausulen betetze-mailari. (% 45)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
L15	Zein hizkuntza ofizialetan daude idatzita (zeuk edo beste norbaitek sortuak) erakunde barruko idazkiak (aktak, deialdiak, txostenak, barne-zirkularrak, mezu elektronikoak, jakinarazpenak, pertsonal arloko dokumentazioa...)?	A	Euskaraz (%)	(la) euskara hutsean idatzita dauden dokumentuen ehunekoa .	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoen batura $L15PB = (A+B) \times 0.20$
		B	Ele bietan (%)	Ele bietan edo nagusiki ele bietan idatzita dauden dokumentuen ehunekoa.	
		C	Gaztelaniaz (%)	(la) gaztelania hutsean idatzita dauden dokumentuen ehunekoa.	

2.2.1.35. adierazlea: Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian. (%15)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.1.35	Erakunde barneko prozedura administratiboak euskaraz jartzen dira abian.	<p>Adierazle honetan neurtuko da zein hizkuntza ofizialetan jarri diren abian erakundeko prozedura administratiboak (kontratuak, dirulaguntzak, zehapenak, baimenak, erreklamazioak...).</p> <p>Jakin badakigu gaur egun hainbat erakundetan oso zaila dela prozedura administratiboak izapidetzeko urrats guztiak euskaraz bakarrik egitea. Hori dela eta, adierazle honetan proposatzen dugu behaketaren bidez estimatzea zenbat prozedura abiatzen diren euskaraz.</p> <p>ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:</p> <p>Behaketa bidez egingo da kalkulua, honela: hilean amaitutako lehen prozedura zein hizkuntza ofizialetan abiatu den aztertuko da. Gutxienez hamabi prozedura hartuko dira kontuan; hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hileko bigarrena hartuko da. Lagina handitu daiteke, hamabi prozedura baino gehiago kontuan hartuta.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E23	Zein hizkuntza ofizialetan abiatu dira aztertutako prozedura administratiboak (dirulaguntzak, kontratuak, zehapenak, baimenak...), azken urtean?	A	Euskaraz (%)	(1a) euskara hutsean abiatutako prozedura administratiboen ehunekoa.	%	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoen batura. $PBE23 = (A+B) \times 0.15$
		B	Ele bietan (%)	Ele bietan edo nagusiki ele bietan abiatutako prozedura administratiboen ehunekoa.	%	
		C	Gaztelaniaz (%)	(1a) gaztelania hutsean abiatutako prozedura administratiboen ehunekoa.	%	

2.2.1.36. adierazlea: Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian. (%15)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.1.36	Xedapen orokorrak euskaraz jartzen dira abian.	<p>Adierazle honen bidez neurtuko da zein hizkuntza ofizialetan jartzen diren abian erakundearen xedapen orokorrak (legeak, arauak, dekretuak, aginduak, erregelamenduak, ordenantzak...).</p> <p>Jakin badakigu gaur egun hainbat erakundetan oso zaila dela xedapen orokorrak izapidetzeko urrats guztiak euskaraz bakarrik egitea. Hori dela eta, adierazle honetan proposatzen dugu behaketaren bidez estimatzea zenbat xedapen orokor abiatzen diren euskaraz.</p> <p>ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:</p> <p>Behaketa bidez egingo da kalkulua, honela: hilean emandako lehen xedapena zein hizkuntza ofizialetan abiatu den aztertuko da. Gutxienez hamabi xedapen hartuko dira kontuan; hilabete batean ez badago halakorik, aurreko hileko bigarrena hartuko da. Lagina handitu daiteke.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E24	Zein hizkuntza ofizialetan abiatu dira aztertutako xedapen orokorrak, azken urtean (legeak, arauak, dekretuak, aginduak, erregelamenduak, ordenantzak...)?	A	Euskaraz (%)	(la) euskara hutsean abiatutako xedapen orokorren ehunekoa	%	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoen batura. PBE24 = (A+B) x 0.15
		B	Ele bietan (%)	Ele bietan edo nagusiki ele bietan abiatutako xedapen orokorren prozedura administratiboen ehunekoa	%	
		C	Gaztelaniaz (%)	(la) gaztelania hutsean abiatutako xedapen orokorren ehunekoa	%	

2.2.1.37 adierazlea. Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago. (% 5)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.1.37	Lanari lotutako hizkuntza-paisaia euskaraz dago	<p>Adierazle honen bitartez neurtuko da zein den erakundearen lanarekin lotutako hizkuntza-paisaiaren egoera. Hauek dira, erantzuteko orduan, langileek kontuan hartuko dituzten elementuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Errotulazio txikia (armairuak, apalak, karpetak, artxiboak...) • Horma-irudiak, eta antzekoak. • Lan-arriskuen prebentzioarekin eta ingurumenarekin lotutako errotulazioa. • Ekoizpen-makinen errotulazioa, botoiak eta plakak. • Errotulazio aldatzailea. • Kafe- eta janari-makinak, fotokopiagailuak, inprimagailuak... • Sareko edo euskarri informatikoko karpetak eta dokumentuak izendatzeko jarraibideak.

Galdera z enbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L16	Zein hizkuntza ofizialetan daude lanarekin lotutako elementuak zure lantokian (karpeten etiketak, fitxategiak, barneko errotulazio txikia, kopiagailuak, kafe-makina...)?	A	Euskaraz (%)	(la) euskara hutsean idatzita dauden dokumentuen ehunekoa.	%	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoaren batura $L16PB=(A+B) \times 0.05$
		B	Ele bietan (%)	Ele bietan edo nagusiki ele bietan idatzita dauden dokumentuen ehunekoa.	%	
		C	Gaztelaniaz (%)	(la) gaztelania hutsean idatzita dauden dokumentuen ehunekoa.	%	

2.2.2. arloa: KANPO-HARREMANAK (% 20)

2.2.2.38 adierazlea. Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana. (% 30)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.2.38	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz egiten da ahozko harremana	Adierazle honi esker ezagutuko dugu langileak zein hizkuntza ofizialetan aritu ohi diren sektore publikoko erakundeekin ahozko harremanak izatean. Beraz, adierazle honetan hizkuntza ofizialen ahozko erabilera neurtuko da, eta ez eskaintza. Beste erakunde publiko batzuekin ahozko harremanak dituzten langileen bidez osatuko da adierazlea.

3.

Galdera z enbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
L17	Zein hizkuntza ofizialetan aritu ohi zara sektore publikoko beste erakunde batzuekin ahozko harremanak izatean ?	99	Ez dagokit, ez dut ahozko harremanik sektore publikoko beste erakundeekin	(-1) baztertzailera	"99" erantzun-aukera hautatu duten langileak kontuan hartu gabe, beste 11 erantzun-aukeretak bakoitza erantzundako langileen ehunekoak kalkulatu behar dira, eta ondoren, erantzun-aukera bakoitzari dagokion balioarekin biderkatu.
		0	Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskararen erabilera % 10 baino baxuagoa.	%	$PBL17 = [((0 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 0)] + (1 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 10 + ((2 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 20) + ((3 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 30) + ((4 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 40) + ((5 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 50) + ((6 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 60) + ((7 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 70) + ((8 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 80) + ((9 \text{ erantzunen ehunekoa}/100) \times 90) + ((10 \text{ erantzunen$
		1	Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskararen erabilera % 10 inguru.	%	
		2	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 20 inguru.	%	
		3	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 30 inguru.	%	
		4	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 40 inguru.	%	
		5	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, euskararen erabilera % 50 inguru.	%	
		6	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskararen erabilera % 60 inguru.	%	
		7	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskararen erabilera % 70 inguru.	%	
		8	Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 80 inguru	%	
		9	Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 90 inguru	%	
10	Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 90 baino altuagoa.	%			

					$\left(\frac{\text{ehunekoa}}{100} \times 100 \right) \times 0,30$ <p>Langile guztiek "99" erantzun-aukera hautatu badute, L17 adierazleari dagokion haztapen-indizearen balioa, arlo bereko gainerako adierazleen artean birbanatu behar da, adierazle bakoitzak lehendik zuen pisuaren arabera</p>
--	--	--	--	--	---

2.2.2.39. adierazlea: Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. (% 40)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.2.39	Sektore publikoko erakundeekin euskaraz edota ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	<p>Adierazle honekin ezagutuko dugu erakundeak zein hizkuntza ofizialetan bidaltzen dizkien idazkiak sektore publikoko beste erakundeei.</p> <p>ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:</p> <p>Horretarako, behaketa egingo da lagin bidez: azken urtean, hilabete bakoitzean sektore publikoko erakundeei bidalitako lehenengo bi dokumentuak hartuko dira irteera erregistrotik edo horretarako erakundeak aurreikusitako beste bide batetik, eta aztertuko da zein hizkuntza ofizialetan dauden.</p> <p>Hilabeteren batean ez badago halakorik, aurreko hileko hurrengo(a)(k) hartuko d(ir)a.</p> <p>Lagina handitu daiteke, hilean bi agiri baino gehiago hartuz.</p> <p>Adierazle honen balioa kalkulatzeko orduan euskara hutsean bidalitako dokumentuei % 100eko balioa emango zaie, ele bietan bidalitakoei % 50 eta gaztelaniazkoiei % 0. Hori dela eta adierazlearen balioa % 100 izango da baldin eta herritarrek euskaraz aurkeztutako dokumentu guztiei euskara hutsean erantzuten bazaie.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E25	Zein hizkuntza ofizialetan daude sektore publikoko beste erakundeei, azken urtean, bidalitako dokumentuak?	A	Euskaraz (%)	(la) euskara hutsean bidalitako dokumentuen ehunekoa.	%	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoen batura. PBE25 = (A+(Bx0.50)) x 0.40
		B	Ele bietan (%)	Ele bietan edo nagusiki ele bietan bidalitako dokumentuen ehunekoa.	%	
		C	Gaztelaniaz (%)	(la) gaztelania hutsean bidalitako dokumentuen ehunekoa.	%	

2.2.2.40 adierazlea. Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana. (% 15)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.2.40	Enpresa pribatuekin euskaraz egiten da ahozko harremana	Adierazle honen bidez ezagutuko dugu langileak zein hizkuntza ofizialetan aritu ohi diren enpresa pribatuetako langileekin ahozko harremanak izatean (hornitzaileak, finantza-erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu-erabiltzaileak...). Beraz, adierazle honetan hizkuntza ofizialen ahozko erabilera neurtuko da, eta ez eskaintza. Enpresa pribatuetako langileekin ahozko harremanak dituzten langileen bidez osatuko da adierazlea.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
L18	Zein hizkuntza ofizialetan aritu ohi zara zure erakundeak harremana duen enprekin ahozko harremanak izatean (hornitzaileak, finantza-erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu-erabiltzaileak...)?	99	Ez dagokit, ez dut ahozko harremanik izaten nire erakundeak harremana duen beste erakunde pribatuekin.	(-1) baztertzalea	"99" erantzun-aukera hautatu duten langileak kontuan hartu gabe, beste 11 erantzun-aukeretako bakoitza erantzundako langileen ehunekoak kalkulatu behar dira, eta ondoren, erantzun-aukera bakoitzari dagokion balioarekin biderkatu.
		0	Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskararen erabilera % 10 baino baxuagoa.	%	PBL18 = (((0 erantzunen ehunekoa/100) x 0)) + (1 erantzunen ehunekoa/100) x 10) + ((2 erantzunen ehunekoa/100) x 20) + ((3 erantzunen ehunekoa/100) x 30) + ((4 erantzunen ehunekoa/100) x 40) + ((5 erantzunen ehunekoa/100) x 50) + ((6 erantzunen ehunekoa/100) x 60) + ((7 erantzunen ehunekoa/100) x 70) + ((8 erantzunen ehunekoa/100) x 80) x + ((9 erantzunen ehunekoa/100) x 90) + ((10 erantzunen ehunekoa/100) x 100)))] x 0,15
		1	Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskararen erabilera % 10 inguru.	%	
		2	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 20 inguru.	%	
		3	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 30 inguru.	%	
		4	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 40 inguru.	%	
		5	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, euskararen erabilera % 50 inguru.	%	
		6	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskararen erabilera % 60 inguru.	%	
		7	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskararen erabilera % 70 inguru.	%	
		8	Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 80 inguru.	%	
		9	Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 90 inguru.	%	
10	Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 90 baino altuagoa.	%			

					Langile guztiek "99" erantzun-aukera hautatu badute, L1 adierazleari dagokion haztapen-indizearen balioa, arlo bereko gainerako adierazleen artean birbanatu behar da, adierazle bakoitzak lehendik zuen pisuaren arabera
--	--	--	--	--	---

2.2.2.41. adierazlea: Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak. (%15)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.2.41	Enpresa pribatuekin euskaraz edo ele bietan izaten dira idatzizko komunikazioak.	<p>Adierazle honek neurtuko du erakundeak zein hizkuntza ofizialetan bidaltzen dizkien idazkiak enpresa pribatuei (hornitzaileak, finantza-erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu-erabiltzaileak...).</p> <p>ERANTZUTEKO JARRAIBIDEAK:</p> <p>Horretarako, behaketa egingo da lagin bidez: azken urtean, hilabete bakoitzean enpresa pribatuei bidalitako lehenengo bi dokumentuak hartuko dira irteera erregistrotik edo horretarako erakundeak aurreikusitako beste bide batetik, eta aztertuko da zein hizkuntza ofizialetan dauden.</p> <p>Hilabeteren batean ez badago halakorik, aurreko hileko hurrengo(a) hartuko d(ir)a.</p> <p>Lagina handitu daiteke, hilean bi agiri baino gehiago hartuz.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E26	Zein hizkuntza ofizialetan daude erakundeak harremana duen enpresei (hornitzaileak, finantza-erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu-erabiltzaileak...) azken urtean bidalitako dokumentuak?	A	Euskaraz (%) (1a) euskara hutsean bidalitako dokumentuen ehunekoa.	%	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoaren batura. PBE26 = (A+B) x 0.15
		B	Ele bietan (%) Ele bietan edo nagusiki ele bietan bidalitako dokumentuen ehunekoa.	%	
		C	Gaztelaniaz (%) (1a) gaztelania hutsean bidalitako dokumentuen ehunekoa.	%	

2.2.3. arloa: PRESTAKUNTZA (% 15)

2.2.3.42. adierazlea. Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei. (% 35)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.3.42	Erakundeak euskaraz eskaintzen die prestakuntza orokorra langileei.	<p>Adierazle honi esker neurtuko da erakundeak langileei eskaintako prestakuntza orokorretik zenbat ikastaro eskaintzen diren euskaraz.</p> <p>Erakundeak berak beharren arabera antolatzen duen prestakuntza-eskaintzaz gain, kanpoko beste erakunde batek (IVAP, Merkataritza-Ganbera edota EHU-UPV, esaterako) egindakoa ere neurtuko da atal honetan.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
E27	Erakundeak urtean eskaintako prestakuntza orokorretik, zenbatekoa da euskarazkoa?	9	Ez dagokio	Ez dagokio, erakundeak ez die langileei prestakuntza orokorrerako eskaintzarik egin	(-1) baztertzaila	Puntuaziorako kalkulatu beharreko balioa da: "euskaraz" eta "ele bietan" ehunekoen batura. PBE27= (A+B) x 0.35 "9" aukeratzuz gero arloko besteen artean birbanatuko da.
		A	Euskaraz (%)	(Ia) euskara hutsean eskaintako prestakuntza saioren ehunekoa	%	
		B	Ele bietan (%)	Ele bietan edo nagusiki ele bietan eskaintako prestakuntza saioren ehunekoa	%	
		C	Gaztelaniaz (%)	(Ia) gaztelania hutsean eskaintako prestakuntza saioren ehunekoa	%	

2.2.3.43 adierazlea. Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra (% 45)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.3.43	Langileek euskaraz jasotzen dute prestakuntza orokorra	<p>Adierazle honen bidez ezagutuko dugu langileek zein hizkuntza ofizialetan jaso duten prestakuntza orokorra azken urtean; finean, eskaintzari buruko informazioa ematen digun aurreko adierazlea (2.2.3.42) osatzen du honek.</p> <p>Prestakuntza orokorra jaso duten langileen bitartez beteko da adierazle hau, prestakuntza hori zein hizkuntza ofizialetan jaso duten galdetuta.</p>

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
L19	Zein hizkuntza ofizialetan jaso duzu prestakuntza orokorra azken urtebetean?	99	Ez dagokit, ez dut prestakuntza orokorrik jaso azken urtebetean	(-1) baztertzaila	"99" erantzun-aukera hautatu duten langileak kontuan hartu gabe, beste 11 erantzun-aukeretako bakoitza
		0	Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskaraz prestakuntza orokorraren % 10 baino gutxiago.	%	

	1	Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskaraz prestakuntza orokorraren % 10 inguru.	%	erantzundako langileen ehunekoak kalkulatu behar dira, eta ondoren, erantzun-aukera bakoitzari dagokion balioarekin biderkatu. PBL19 = (((0 erantzunen ehuneko/100 x 0))+ (1 erantzunen ehuneko/100) x 10) ((2 erantzunen ehuneko/100) x 20) +((3 erantzunen ehuneko/100) x 30) + ((4 erantzunen ehuneko/100) x 40) + ((5 erantzunen ehuneko/100) x 50) + ((6 erantzunen ehuneko/100) x 60) +((7 erantzunen ehuneko/100) x 70) + ((8 erantzunen ehuneko/100) x 80) x + ((9 erantzunen ehuneko/100) x 90) + ((10 erantzunen ehuneko/100) x 100)))] x 0,45
	2	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskaraz prestakuntza orokorraren % 20 inguru.	%	
	3	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskaraz prestakuntza orokorraren % 30 inguru.	%	
	4	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskaraz prestakuntza orokorraren % 40 inguru.	%	
	5	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, euskaraz prestakuntza orokorraren % 50 inguru.	%	
	6	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskaraz prestakuntza orokorraren % 60 inguru.	%	
	7	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskaraz prestakuntza orokorraren % 70 inguru.	%	
	8	Beti edo ia beti euskaraz, euskaraz prestakuntza orokorraren % 80 inguru.	%	
	9	Beti edo ia beti euskaraz, euskaraz prestakuntza orokorraren % 90 inguru.	%	
	10	Beti edo ia beti euskaraz, euskaraz prestakuntza orokorraren %90 baino gehiago.	%	

2.2.3.44. adierazlea: Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei. (% 20)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.3.44	Hizkuntza-trebakuntza eskaini zaie langileei.	Adierazle honekin neurtuko da berariaz hizkuntzarekin lotutako trebakuntzarik eskaini ote duen erakundeak, bai ikastaroen bidez, bai bestelako formatuen bidez (trebakuntza-fitxak, pilulak...). Hizkuntza-trebakuntzat hartu behar dira langileak euren lanpostuko zereginak euskaraz burutzen laguntzeari begirako prestakuntza, eta ez euskara-maila bat egiaztatzeko ikastaroak.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak		Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
E28	Langileei eskaintzen zaie euren lanpostuko zereginak euskaraz burutzen laguntzeko hizkuntza-trebakuntzarik?	1	Batere ez	Langileei ez zaie hizkuntza-trebakuntzarik eskaintzen.	0	Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa izango da, 4 balio posibleekin: 0, 25, 75 edo 100. PBE28 = puntuazioaren balioa x 0.20
		2	Oinarrizko eskaintza	Langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie, baina ez modu indibidualizatuan edo norberaren beharrak kontuan hartuta.	25	
		4	Eskaintza aurreratua	Langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie modu indibidualizatuan, euren beharrak aztertu ondoren.	75	

		5	Eskaintza oso aurreratua	Langileei hizkuntza-trebakuntza eskaintzen zaie modu indibidualizatuan, euren beharrak aztertu ondoren. Gainera, prestakuntzak eguneroko lanean izan duen eragina neurtzen da.	100	
--	--	---	---------------------------------	--	-----	--

2.2.4. arloa: BALIABIDE INFORMATIKOAK (% 15)

2.2.4.45 adierazlea. Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak. (% 50)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.4.45	Erakundeak langileen eskura jartzen ditu euskaraz lan egiteko behar dituzten baliabide informatikoak	Adierazle honek neurtuko du erakundeak langileen eskura jartzen dituen baliabide informatikoak euskaraz (ere) dauden eskuragarri.

Galdera zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak	Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura	
L20	Zure lanean erabiltzen dituzun baliabide informatiko guztietatik, zenbat dituzu eskuragarri euskaraz?	99	Ez dagokit, ez dut baliabide informatikorik erabiltzen nire lanean.	(-1) baztertzaila	"99" eta "98" erantzun-aukerak hautatu dituzten langileak kontuan hartu gabe, beste 11 erantzun-aukeretako bakoitza erantzundako langileen ehunekoak kalkulatu behar dira, eta ondoren, erantzun-aukera bakoitzari dagokion balioarekin biderkatu. PBL20 = (((0 erantzunen ehunekoa/100 x 0)) + (1 erantzunen ehunekoa/100) x 10) ((2 erantzunen ehunekoa/100) x 20) + ((3 erantzunen ehunekoa/100) x 30) + ((4 erantzunen ehunekoa/100) x 40) + ((5 erantzunen ehunekoa/100) x 50) + ((6 erantzunen ehunekoa/100) x 60) + ((7 erantzunen ehunekoa/100) x 70) + ((8 erantzunen ehunekoa/100) x 80) x + ((9 erantzunen ehunekoa/100) x 90) + ((10 erantzunen ehunekoa/100) x 100))]] X 0.50
		0	Guztiak edo ia guztiak gaztelaniaz, euskaraz baliabideen % 10 baino gutxiago daude eskuragarri.	%	
		1	Guztiak edo ia guztiak gaztelaniaz, euskaraz baliabideen % 10 inguru daude eskuragarri.	%	
		2	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskaraz baliabideen % 20 inguru daude eskuragarri.	%	
		3	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskaraz baliabideen % 30 inguru daude eskuragarri.	%	
		4	Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskaraz baliabideen % 40 inguru. daude eskuragarri.	%	
		5	Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, euskaraz baliabideen % 50 inguru daude eskuragarri.	%	
		6	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskaraz baliabideen % 60 inguru daude eskuragarri.	%	
		7	Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskaraz baliabideen % 70 inguru daude eskuragarri.	%	
		8	Guztiak edo ia guztiak euskaraz, euskaraz baliabideen % 80 inguru daude eskuragarri.	%	

		9	Guztiak edo ia guztiak euskaraz, euskaraz baliabideen % 90 inguru daude eskuragarri.	%	badute, L20 adierazleari dagokion haztapen-indizearen balioa, arlo bereko gainerako adierazleen artean birbanatu behar da, adierazle bakoitzak lehendik zuen pisuaren arabera
		10	Guztiak edo ia guztiak euskaraz, euskaraz baliabideen % 90 baino gehiago.	%	

2.2.4.46 adierazlea. Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak. (% 50)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.4.46	Langileek euskaraz erabiltzen dituzte euskaraz erabilgarri dituzten baliabide informatikoak	Adierazle honek neurtuko du langileek zein hizkuntza ofizialetan erabiltzen dituzten euskaraz erabilgarri dituzten baliabideak (aplikazioak, ofimatika balibabideak...) Baliabide informatikoak erabiltzen dituzten langileen erantzunak bakarrik hartuko dira kontuan adierazlearen balioa kalkulatzeko.

Galdera z enbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak	Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
L21	Zein hizkuntza ofizialetan erabiltzen dituzu euskaraz erabil ditzakezun baliabide informatikoak?	99 Ez dagokit, ez dut baliabide informatikorik erabiltzen nire lanean.	(-1) baztertzailer	"99" eta "98" erantzun-aukerak hautatu dituzten langileak kontuan hartu gabe, beste 11 erantzun-aukeretako bakoitza erantzundako langileen ehunekoak kalkulatu behar dira, eta ondoren, erantzun-aukera bakoitzari dagokion balioarekin biderkatu. PBL20 = [((0 erantzunen ehunekoa/100) x 0)] + (1 erantzunen ehunekoa/100) x 10) + ((2 erantzunen ehunekoa/100) x 20) + ((3 erantzunen ehunekoa/100) x 30) + ((4 erantzunen ehunekoa/100) x 40) + ((5 erantzunen ehunekoa/100) x 50) + ((6 erantzunen ehunekoa/100) x 60) + ((7 erantzunen ehunekoa/100) x 70) + ((8 erantzunen ehunekoa/100) x 80) + ((9 erantzunen ehunekoa/100) x 90) + ((10 erantzunen ehunekoa/100) x 100)] * 0.50 Langile guztiek "99" eta "98" erantzun-aukera hautatu badute, L20 adierazleari dagokion haztapen-indizearen balioa, arlo bereko gainerako adierazleen artean birbanatu behar da, adierazle bakoitzak lehendik zuen pisuaren arabera .
		98 Ez dagokit, nire lanean ez dut euskaraz erabili dezakedan aplikazio informatikorik.	(-2) baztertzailer	
		0 Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskararen erabilera % 10 baino baxuagoa.	%	
		1 Beti edo ia beti gaztelaniaz, euskararen erabilera % 10 inguru.	%	
		2 Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 20 inguru.	%	
		3 Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 30 inguru.	%	
		4 Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago, euskararen erabilera % 40 inguru.	%	
		5 Euskaraz gaztelaniaz bezainbeste, euskararen erabilera % 50 inguru.	%	
		6 Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskararen erabilera % 60 inguru.	%	
		7 Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago, euskararen erabilera % 70 inguru.	%	
		8 Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 80 inguru.	%	
		9 Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera % 90 inguru.	%	
10 Beti edo ia beti euskaraz, euskararen erabilera %90 baino altuagoa.	%			

2.2.5. arloa: SORTZE-HIZKUNTZA (%20)

2.2.5.46 adierazlea. Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak. (% 100)

Adierazlea		
Kod.	Deskribapena	Azalpena
2.2.5.46	Langileek euskaraz sortzen dituzte dokumentuak	<p>Adierazle honen bidez ezagutuko dugu langileek euskaraz edo ele bietan zabaldu behar dituzten testuetan (txostenak, gutunak, oharrak, mezu elektronikoak, jakinarazpenak...) zein den erabilitako sortze-hizkuntza eta zein baliabideren laguntzaz sortzen dituzten.</p> <p>Hori dela eta, adierazle honen balioa kalkulatzeko kontuan hartuko dira nagusiki euskaraz eta euskara hutsean sortzen dutela adierazi duten langileen erantzunak.</p>

Galde zenbakia	Galdera	Erantzunak eta alboan joan beharreko azalpenak			Puntuaziorako balioa	Puntuazioa kalkulatzeko prozedura
L22	Nola sortzen dituzu euskaraz edo ele bietan zabaldu behar dituzun idazkiak (dokumentuak, inprimakiak, mezu elektronikoak, gutunak, ofizioak, bilera-deiak, aktak...)?	9	Ez dagokit	Nire lanean ez dut euskarazko testurik sortu behar (-1)	(-1) baztertzalea	<p>Erantzun-aukera bakoitzari dagokion puntuazioa, erantzun hori eman duten langileen ehunekoarekin haztatuko da, modu honetara:</p> $L21PB = [((1 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 0) + ((2 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 25) + ((4 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 75) + ((5 \text{ erantzunen ehuneko}/100) \times 100)] \times 1$ <p>Langile guztiek "9" aukeratuz gero, L21 adierazleari dagokion haztapen-indizearen balioa, arlo bereko gainerako adierazleen artean birbanatu behar da, adierazle bakoitzak lehendik zuen pisuaren arabera.</p>
		1	Gaztelaniaz, euskarazko testuaren ardurarik gabe.	Gaztelaniaz; gero itzultzaile neuronalaren erabiltzen dut, baina itzulpena ez dut gainbegiratu; edota itzultzera bidaltzen dut edo lankide batek itzultzen du.	0	
		2	Gaztelaniaz, euskarazko testuaren ardurarekin .	Gaztelaniaz; gero itzultzaile neuronalaren edo beste baliabide batzuk erabiltzen ditut, eta sortutako testua gainbegiratu eta atontzen dut.	25	
		4	Nagusiki euskaraz.	Euskaraz, nahiz eta zati batzuk itzultzaile neuronalaren edo beste baliabideren baten laguntzarekin atontzen ditudan.	75	
		5	Euskara hutsean.	Euskaraz sortzen dut testua oso-osorik.	100	

2023-2027 Plan Estrategikoaren laburpena

BERGARAKO UDALEAN

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO

2023-2027 PLANAREN LABURPENA

DOKUMENTU HONEN HELBURUA ETA EDUKIA

Dokumentu honen helburua da Udalean Euskararen Erabilera bultzatzeko plana egiteko prozesuaren berri laburra ematea.

Plana maiatzeko plenoan, hilaren 22an, onartu nahi litzateke eta, ondorioz, ordezkari politiko zein langileen ekarpenekin osatutako diagnosiaren eta diseinatu den planaren laburpena dakarren dokumentu hau osatu dugu. Dokumentuan honakoak jasotzen dira:

1. Diagnosiaren gaineko informazioa, bereziki, langileek erantzundako galderen emaitzak.
2. Plan Estrategikoa 2023-2027. Bertan jasotzen dira 2022ko egoeraren balorazio kuantitatiboa eta hurrengo 5 urteetarako irizpide eta neurri nagusiak.
3. 2023rako kudeaketa planeko ekintza nagusiak.
4. Plana garatzeaz arduratuko den egitura.

Zuzeneko aurkezpenak aurrerago. Planean bertan jasota datorren ekintzetako bat da planaren berri departamentuz departamentu ematea, baina eginkizun hori aurrerago, agintaldi berrian, bideratzeko utzi da, orain horretarako denborarik ez dagoelako. Momentu horretan ere aukera izango da planari ekarpen berriak egiteko; izan ere, honako hau plan bizia izatea nahi dugu, iraungo dituen 5 urteetan osatzen joango dena.

1.- DIAGNOSIAREN GAINEKO INFORMAZIOA.

1.1.- NOLA EGIN DA?

Diagnosia egiteko 47 adierazle edo indikadore erabili dira. Adierazleok bi ardatz edo ataletan banatuta zeuden:

- **KUDEAKETA (19 adierazle): Euskara plana nola gestionatzen** den jasotzen da hemen: plana bultzatzeko zein egitura duen, departamentu bakoitzak plana asumitu eta bultzatzen duen, planaren jarraipena nola egiten den, langileei plana nola komunikatzen zaien, langileek zer parte hartzen duten, enpresak kontratatzean hizkuntza irizpiderik jartzen zaien eta abar.
- **ERABILERA (28 adierazle).** Udalak zein hizkuntzatan funtzionatzen duen jasotzen da hemen. Bai ahoz eta bai idatziz, udal barruan zein kanpokoekin duen harremanetan. Eta baita, idatziak zein hizkuntzatan sortzen diren.

47 adierazleak jasotzeko bi galdetegi edo kuestionario erabili dira: *Langileentzako galdetegia* eta *Erakundearen galdetegia*. Langileentzako galderak pertzepzioz betetzekoak ziren, daturik jaso beharrik gabe, eta Erakundearen galdetegikoak batzuk pertzepzioz eta beste batzuk behaketaz, datuak jasota.

Langileentzako galdetegia 102 langilek bete dute eta Erakundearen galdetegiko galderak nagusiki Euskara Zerbitzuak erantzun ditu, batzuetan arloetako teknikariek kontrastatuta.

1.2.- EMAITZA

Azpiko taulan agertzen dira langileek euren galdetegiko galderei emandako erantzunak, balorazio positiboena izan zuenetik negatiboena izan zuenera ordenatuta, ehunekoetan adierazita.

Oharra: kopuru hauek honela ulertu behar dira: 100ek balorazio positiboena adierazten du galdera guztietan: euskararen erabilera altuena, irizpideen betetze-maila altuena, ekintzetan parte hartze altuena eta abar.

Langileei egindako galderak (laburtuta)	EMAITZA %
Zein hizkuntzatan daude idatzita udal barruko idazkiak (aktak, deialdiak, txostenak, barnezirkularrak...)?	97
Zein hizkuntzatan daude lanarekin lotutako elementuak zure lantokian (karpeten etiketak, fitxategiak, barneko errotulazio txikia, kopiagailuak, kafe-makina...)?	96
Zein hizkuntzatan ematen duzu zerbitzua, herritarra ahoz euskaraz hasi bada?	96
Zein hizkuntzatan egiten dituzue erakunde barneko lan bilerak?	93
Nola ikusten duzu zeure burua lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, ahoz?	91
Betetzen dituzu zure lanpostuari dagozkion hizkuntza-irizpideak?	90
Zein hizkuntzatan izaten dituzu laneko ahozko harremanak lankideekin?	89
Nola baloratzen duzu Bergarako udala euskararen erabilera sustatzeko egiten ari den lana?	88
Argi duzu zure lan-jarduneko harreman eta jarduera bakoitzean zer-nola erabili behar dituzun hizkuntza ofizialak?	87
Zer neurritan betetzen dituzu Udalak adostutako eta zure lan-jardunari dagozkion hizkuntza-eginkizunak?	87
Zein hizkuntzatan eskaintzen diezu zerbitzua herritarrei ahoz, herritarrek berak hizkuntza aukeratu baino lehen?	87
Zein hizkuntzatan aritu ohi zara lankideekin ahozko harreman informalk izatean (atsedenaldietan eta halakoetan)?	86
Zein hizkuntzatan aritu ohi zara sektore publikoko beste erakunde batzuekin ahozko harremanak izatean?	84
Nola sortzen dituzu euskaraz edo ele bietan zabaldu behar dituzun idazkiak (dokumentuak, inprimakiak, mezu elektronikoak, bilera-deiak, aktak...)?	84
Nola ikusten duzu zeure burua lanpostuaren funtzioak euskaraz betetzeko, idatziz?	83

Zein hizkuntzatan erabiltzen dituzu euskaraz erabilgarri dituzun baliabide informatikoak (aplikazioak, ofimatikakoak...)?	83
Erabiltzen dituzun baliabide informatiko guztietatik, zenbat dituzu euskaraz (ofimatikako baliabideak, aplikazioak...)?	78
Zein hizkuntzatan aritu ohi zara enprekin ahozko harremanetan (hornitzaileak, finantza-erakundeak, erakunde kolaboratzaileak, zerbitzu-erabiltzaileak...)?	70
Zer hizkuntzatan zuzendu ohi zaizkizu herritarrek, ahoz?	69
Zein hizkuntzatan jaso duzu prestakuntza orokorra azken urtebetean?	62
Zenbatetan parte hartu duzu Udalak euskararen erabilera sustatzeko antolatutako ekintzetan?	59

Hurrengo atalean, Plan Estrategikoaren laburpenean, ikus daiteke langileen galdetegia eta erakundeena batuta arloz arlo jasotako balorazio orokorra.

2.- PLAN ESTRATEGIKOA 2023-2027.

2.1.- HELBURUA.

Bergarako Udala euskararen arnagunea izango da: euskara izango da bertako ohiko lan-hizkuntza bai ahoz eta bai idatziz, eta kanpokoekin ere, ahal den guztietan, euskarazko funtzionamendua bultzatuko du.

2.2.- PLANEKO IRIZPIDE NAGUSIEN DEKALOGOA. 2023an landuko da hizkuntza irizpideen dokumentu berria. Bitartean planaren oinarri izango diren 10 irizpide nagusiok jaso dira:

KUDEAKETA

- 1. Kudeaketa sistema.** Euskararen erabileraren normalizazioa udalaren kudeaketa orokorrean txertatuko da, eta udal organo eta departamentu bakoitzak bere arloko ardurak hartuko ditu.
- 2. Jarraipena.** Planaren jarraipen sistematikoa egingo da, horretarako adierazle-panela sortuta.
- 3. Lidergoa, eredugarritasuna.** Udaleko kideak, bereziki ardura postuak dituzten politiko zein langileak, eredu izango dira euskarari dagokionez eta jarrera proaktiboa izango dute: eurek euskaraz egingo dute eta euskaraz egitea bultzatuko dute euren jardunean.
- 4. Hizkuntza klausulak.** Hizkuntza irizpideak txertatuko dira enpresak kontratatzerakoan zein dirulaguntzak ematerakoan eta horien betetzearen jarraipena egingo da.

ERABILERA

- 5. Udaleko ohiko hizkuntza.** Udal jarduneko ohiko hizkuntza euskara izango da, bai ahoz eta bai idatziz.
- 6. Irudia.** Udalaren irudia osatzen duten elementuak (errotulazioak, inprimakiak, webguneak, sare sozialak, makineta instrukzioak...) euskaraz edo euskarari lehentasuna emanaz gauzatuko dira, baita kontratatutako enpresek jartzen dituztenean ere.
- 7. Euskarazko harreman sarea.** Kanpo harremanetan ere euskara hutsezko harreman sarea zabaltzea bultzatuko da: herritarrekin, enprekin, erakundeekin, elkarteekin...
- 8. Sortze-hizkuntza.** Testuen sortze-hizkuntza euskara izango da. Bereziki, euren lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileek euskaraz lan egingo dute eta, arrazoiren bategatik testua ele bieran bideratzekoa bada, itzulpena Euskara Zerbitzuan egingo da, itzulpenetarako irizpideei jarraiki.
- 9. Ele bietakoetan euskarari lehentasuna.** Ele bieran egin behar denean, euskarari lehentasuna emango zaio, ahozkoan zein idatzizkoan eta, ahal denean, euskarazko eta elebitako idatziak bereiziko dira.
- 10. Hizkera argia.** Euskarazko testuetan hizkuntza kalitatea ziurtatuko da, bereziki, herritarrei bideratuetan.

2.3.- PLANEAN JASOTAKO HELBURU ETA JARDUERA GARRANTZITSUENAK

Diagnosia bezala, plana ere bi ardatzetan banatu da: Kudeaketa eta Erabilera. Eta gero ardatz bakoitza hainbat arlotan. Ezkerreko zutabearen arloak jaso ditugu eta eskumakoan hurrengo 5 urteetarako aurreikusi diren neurri nagusiak. Gorriz diagnosian arlo bakoitzak izandako balorazioa jaso dugu eta urdinez 2027rako finkatutako helburua.

1. ARDATZA: KUDEAKETA. **BALORAZIOA: %69.**

Arloa	Helburuak, neurriak 2023-2027
1. EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA: % 60 - % 75 Diagnostikoan balorazio baxua izan du irizpideen jarraipenak: %50.	<ul style="list-style-type: none"> • Plana kudeatzeko egitura egokia antolatzea. Planean organo edo talde hauek proposatzen dira: Batzorde Eragilea, arloetako lantaldeak, gaikako lantaldeak, lantalde teknikoak.... • Planaren jarraipena egiteko adierazle-panel egokia sortzea eta jarraipen sistematikoa egitea. • Hizkuntza irizpideen dokumentu orokorra osatzea.
2. LIDERGOA, % 70 - % 84 politiko eta teknikarien inplikazioa, adierazleak batzea... Balorazio baxua: arduradunek adierazleak jasotzea: %50	<ul style="list-style-type: none"> • Arduradun politiko eta teknikoek normalizazio planean dituzten funtzio eta egitekoak landu eta komunikatzea. • Udalbatza berriari Erabilera plana aurkeztea.
3. LANGILEAK, % 81 - % 88 Langileei komunikazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Departamentuz departamentu bilerak egin eta langileei Erabilera plana eta hizkuntza-irizpideak komunikatzea, bakoitzaren egitekoak azalduaz eta ekarpenak jasoaz.
4. GAITASUNA, % 91 - % 92 Politiko eta langileena.	<ul style="list-style-type: none"> • Langileak animatzea euskara maila hobetzera: bereziki, lanpostuaren hizkuntza eskakizuna baino maila baxuagoa dutenak edo hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan arren, eginkizunak euskaraz egoki betetzeko zailtasunak dituztenak, eta horretarako baliabideak eskaini. • Udalkide berrien hizkuntza ezaugarrien eta beharren informazioa jaso eta euskaraz funtzionatzeko laguntza-bideak eskaintzea. • Ordezkarri politikoak euskaldunak izatea bultzatzen jarraitzea, udalaren euskarazko funtzionamendua bermatzeko.
5. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA. % 72- % 96	<ul style="list-style-type: none"> • Erabilera plana komunikatzea herritarrei eta udalarekin ohiko harremana duten entitateei: enpresa, elkarte, erakunde eta abarrei.
6. HIZKUNTZA KLAUSULAK: % 60 - % 93 Kontratazioetakoak, dirulaguntzetakoak, hitzarmenetakoak... Balorazio baxua, dirulaguntzen irizpideen jarraipena: %25	<ul style="list-style-type: none"> • Udalak egiten dituen kontratazioetan eta dirulaguntzetan hizkuntza irizpideak jartzea eta horien betetzearen jarraipena egitea.
7. arloa. HIZKUNTZA KALITATEA ZAINTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Zabalpen handiko errotulazio, ohar eta mota guztietako idatzietan euskararen kalitatea zaintzea, bai udalaren idatzietan eta baita subkontratutako enpresek jartzen dituztenetan ere.

2. ARDATZA: EUSKARAREN ERABILERA. **BALORAZIOA: %86**

2.1.- ZERBITZU HIZKUNTZA. **BALORAZIOA: % 94**

Arloa	Helburuak, neurriak 2023-2027
1. IRUDIA, % 99 – %100 Errotuluak, ikus-entzunezkoak, argitalpenak, agerraldi instituzionalak, web eta sare sozialak	Ikus hizkuntza kalitatearen atala (4.1. atalean)
2. HERRITARREKIKO HARREMANAK (PERTSONA FISIKOEKIN) % 93 - % 100 Jakinarazpenak, ekitaldiak, ikastaroak... EGOERA: Irteerak: %20 E, %80 B Sarrerak: %48 E, % 52 G.	<ul style="list-style-type: none">• Ekitaldien hizkuntza informazioa jasotzea erraztea eta sistematizatzerik izango genukeen aztertzea.• Gaur egunean herritarrekin ditugun komunikazioak aztertzea eta euskara hutsezkoak areagotzeko bidea lantzea.

2.2.- LAN HIZKUNTZA. **BALORAZIOA: % 83**

Arlo giltzarria	Helburuak, neurriak 2023-2027
3. BARNE-HARREMANAK, % 94- % 95 Lan-bilerak, prozedura administratiboak, ordenantza, plegu, arautegi, oinarrizko dokumentuak...	<ul style="list-style-type: none">• Lanorduetan ahoz euskararen erabilera sustatzeko sentiberatze-bilerekkin jarraitzea eta ekimen berriak bideratzea, dauden metodologiak erabiliaz: Eusle...• Gaztelaniaz sortzen diren idatzen bilketa egitea eta euskaraz sortzeko bidea jorratzea.
4. KANPO-HARREMANAK, % 89 - % 90 Pertsona juridikoeikiko harremanak: erakunde publikoekin, enpresekin, elkarteekin...	<ul style="list-style-type: none">• Enpresekin euskara hutsezko harremana sustatzea. Oraingo egoera: Irteerak: %62 Euskaraz eta %38 Bietan; sarrerak: %38 E, %7 B eta %55 Gaztel.• Erakundeekin euskara hutsezko harremana sustatzea. Oraingo egoera: Irteerak: %68 E eta %32 B; eta Sarrerak %25 E, %65 B eta % 10 G.
5. PRESTAKUNTZA, % 54- % 66 Prestakuntza orokorra, euskara prestakuntza, laneko trebakuntza... Balorazio baxua, trebakuntza: %25	<ul style="list-style-type: none">• Udalak eskaintzen duen prestakuntza euskaraz izatea eta beste erakunde batzuk prestatzen dutenetan ere euskarazkoa bultzatzea.• Administrazio hizkera argia lantzeko ikastaroak antolatzea.
6. BALIABIDE INFORMATIKOAK, % 81 - % 86.	<ul style="list-style-type: none">• Lanpostu bakoitzeko baliabide informatiko nagusien eta horien hizkuntzaren inbentarioa egitea eta mantentzea.• Udal barruko erabilerako aplikazioak euskaraz instalatzea, aukera dagoen guztietan.• Gaztelaniazko aplikazioak euskaratzeko bideak jorratzea.• Adimen artifizialaren aukerak aztertzea.
7. SORTZE-HIZKUNTZA, % 85- % 90 Dokumentuen sortze-hizkuntza	<ul style="list-style-type: none">• Itzulpenen noranzkoaren gaineko txostena egitea, sortze-hizkuntzari buruzko informazioa jasotzeko.

3.- 2023RAKO KUDEAKETA PLANeko ILDO ETA EKINTZA NAGUSIAK.

Honako hauek dira 2023rako finkatutako ildo eta ekintza nagusiak:

- 1.- **Plana ezagutzera ematea:** alde batetik, herritarrei eta udalarekin harreman berezia duten entitateei, eta, bestetik, udal barruan, ordezkari politiko berriei eta langileei. Departamentuz departamentu aurkeztea aurreikusten da.
- 2.- **Hizkuntza Irizpide berrituak landu eta onartzea.** Planarekin batera, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartu beharra dago. Planean irizpide nagusien dekalogo txertatu dugu baina aurrerago dokumentu zabalago eta zehatzagoa landuko dugu.
- 3.- **Planaren oinarri berriak jartzea:** Planaren egitura berria martxan jartzea eta jarraipenerako adierazleen aginte-panela sortzea eta aplikatzea.
- 4.- **Abian ditugun ekimenei jarraipena** ematea: Obra eta Zerbitzuen brigadan ahozko erabilera bultzatzekoak eta, bereziki, enpresen kontratazioarekin lotutakoei: hizkuntza klausulen bilduma osatzea, klausulen jarraipenerako prozedura finkatu eta bideratzea, harreman administratiboak euskaraz bideratzea...
- 5.- **Informatikari arreta berezia** eskaintzea: lanpostu bakoitzeko aplikazioen inbentarioa egitea; lanpostuetan euskarazko aplikazioak instalatzea; aplikazioek hizkuntza kudeaketarako eskain ditzaketen aukerak baliatzea; aplikazioak erostean hizkuntza irizpideak jartzea...
- 6.- **Sortze-hizkuntza euskara izateari arreta berezia** eskaintzea.

Ekimenok bideratzeko, hainbat talde jarriko dira abian eta horien osaerari dagokionez irizpide hau erabili dugu: gaiarekin lotura estuena duen arloko kide bat eta Euskarako beste bat izendatzea arduradun.

4.-PLANA ANTOLATZEKO EGITURA

Honako egitura eratu da planaren kudeaketa eraginkorra bideratu nahirik:

1.- BATZORDE ERAGILEA:

- **Osaera:** udaleko Koordinazio-batzordekoak, komitearen ordezkaria, oposizioko ordezkari politikoak, Euskara teknikariak, UEMAKo teknikaria.
- **Egitekoak:** Planaren zuzendaritzaz arduratuko da, aginte organoetara bideratu aurretik plan estrategikoei, kudeaketa planei zein hizkuntza irizpideei oniritzia emateaz, jarraipena egiteaz...
- **Bileren maiztasuna:** 3 hilean behin

2.- TALDE TEKNIKOAK:

- **Osaera:** Euskara arloko ordezkari politikoak, Euskara zerbitzuburua, planeko euskara teknikaria, UEMAKo teknikaria.
- **Egitekoak.** Planaren lanketa teknikoaz arduratuko da, bertan jasotakoak gauzatzeko gidaritza eramateaz, Batzorde Eragileari aholkularitza teknikoak emateaz, Udalez gaindiko koordinazioaz...
- **Bileren maiztasuna:** hilean behin, gutxienez.

3.- ARLOETAKO BILERAK

- **Osaera:** Arloko politikariak eta teknikariak
- **Egitekoak:** Arloko gaiak lantzea, jarraipena egitea, Batzorde Eragileraren proposamenak egitea.
- **Bileren maiztasuna:** 6 hilean behin, gutxienez

4.- **GAIKAKO LANTALDEAK.** Epe mugatukoak zein iraunkorrak, gai jakin bat lantzea helburu izango dutenak. Balizko taldeak: Informatika, Kontratazioa eta enpresekiko harremanak, Komunikazioa...

5.- **LANGILE GUZTIEKIKO KOMUNIKAZIOA:** departamentukako bilerak zein beste euskarri batzuk.